






ataria

2021-12-30 • 1.530. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus





Ibarrako Udala

San Bartolome, 2. • Ibarrako plaza

Tel.: 943 67 11 38

udala@ibarra.eus

www.ibarra.eus

AURKIBIDEA

Osasuna	6-9
Pandemia	10-13
Herriak	14-17
Ekonomia / Lana	18-21
Euskara	22-25
Feminismoa	26-28
Migrazioa	30
Ingurumena	32-33
Hezkuntza	34-36
Kultura	38-39
Politika / Bizikidetzak	40-43
Komunikabideak	44
Teknologia	46-47
Gizartea	48-53
Kirola	54-57



ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai
erabaketa eta
lana euskara

3ikam
3ikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeca Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: Ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txokirre

Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Osasuna eta osasun zerbi

Pandemia hasi zenetik osasuna izan dugu hizpide. Bataren eta bestearen osasun egoerarekin larritu gara, eta osasun zerbitzuak dituen gabeziez ohartu gara ere. Tolosaldean urteak daramatzagu horrela, hala ere. Eskualdeko ospitalearen bueltan eskaera eta mobilizazioen berri eman du TOLOSALDEKO ATARIA-k aurreko urteetan ere, baina 2021a mugarri izan da. Eskualdeko ospitale publiko berria egin egingo dela esan dute eta baita non egingo duten ere, Tolosako suhiltzaileen egoitza ondoko aparkalekuan. 2022rako badago zeregina; ospitaleak izango dituen zerbitzuen inguruko eztabaida egin beharko da, data zehatzak eman beharko dira... Hori guztia jaso du ATARIA-k azken hilabeteetan eta horrela jarraituko du, herritar guztientzat horren garrantzitsua den gaiari buruzko informazioa bildu eta zabaltzen.

Pandemiaren kudeaketak eta COVID-19an positibo eman dutenen kopuruek eman dituzte azken hilabeteetako lerrobuetako asko, eta baita horrekin lotutako neurriek ere: eremu gorriek, mugikortasun mugek, txertaketek, COVID ziurtagiriek...

Baina bestelako gaiak jorratu ditu ere eskualdeko euskara hutsezko komunikabideak eta alarma piztu du: Tolosaldeko ia haur guztiek dakite euskara, baina erabile-ra beherantz doa. Hezkuntza komunitate osoan eragin beharraz hitz egin da azken hilabeteetan eta ikasleekin zein irakasleekin batera, gurasoak direla ezinbesteko nabarmendu da, baina ez horiek bakarrik, komunikabideok ere badugu ardura, eta ATARIA-k bere aletxoak jarriko du, orain arte bezala. Galtzaundi euskara taldearekin batera eskualdeko hizkuntza ohituran eragiten saiatuko da ATARIA, eta ez da bidelagun txarra, 30 urte bete ditu 2021ean eta badu beraz, nahiko esperientzia elkarbanatzeko.

Martxoaren 8ko mobilizazioak, Emakumeen Etxea, eraso matxisten kontrako lan-

itzuak

ketak, lantokietan ematen diren gatazka eta gorabeherak, migrazioa, Oinherri edo Herri Bizi Gune bezalako ekimenak, Tolomendiren Auzolagin(l)tza proiektua edo pentsiodunen asteroko hitzorduak jorratu ditu Tolosaldeko komunikazio taldeak, gizarteari ekarpena egiten duten proiektuak direla sinistuta. Badira gehiago ere, baina ezin guztiak zerrendatu: Tolosaldepedia, Tolosako Bizikidetza Foroa edota Euskaren Aholku Kontseilua, Amalur jardunaldiak, herrietako ostatuak...

2021a ez da aurreko urtea baino errazagoa izan. Horrela uste bazen ere, pandemia betean jarraitzen dugu eta agintariek aipatutako *normaltasun berria* ez da iritsi. Baina aurrera begira jarri behar gara, eta 2022an TOLOSALDEKO ATARIA bidelagun izango dute eskualdeko herritarrek, egiten duten horren berri ematen jarraituko baitu. Ea 2022. urteak zer ekartzen duen, oraingoz jakin badakigu Kilometroak izango dugula berriz ere eskualdean, eta Ibarako Uzturpe ikastolak *Irribarra* marrazten lagunduko duela. Urte berri on!





OSPITALE PUBLIKOAREN BIDE LUZEA

Urtea hastearekin batera, eskualdeko ospitale publikorako kokalekuez mintzo ziren alderdi politikoak. Urtea igarota, suhiltzaileen parkea onartu da kokaleku gisa. Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak eta TOPAk salatu bezala, eskainiko den zerbitzuaz akordioak falta dira.

Bi mila eta hogeia ixtarako, Tolosaldean, lehenengoz, alderdi politiko guztiek eskualde mailako ospitale publikoa eskatu zuten eta kokalekuaren inguruan ere hitz egiten hasi ziren. 2021a abiatzearekin batera, otsailaren 1ean, publiko egin ziren eskualdeko ospitale publiko ezartzeko lau kokaleku «bideragarrienak», Tolosako Udalaren iritziz: San Blas (hilerri azpian), lurrea-mendi (kamioien aparkaleku inguruan), Santa Lutzia (behealdean) eta Usabal (SAM enpresaren inguruan).

Guztira, hamahiru kokaleku aztertu dira irizpide ez-

berdinak kontuan izanda, besteak beste, ingurugiroa, irisgarritasuna, bideragarritasuna, mugikortasuna, lur zatien ezaugarriak, eraikigarritasuna eta aparkalekua. Azterketaren lehen fasea amaituta, behin betiko kokapena erabakitzeke bigarren fasea jarriko zen martxan.

Tolosaldeko Alkateen Mugimendura batzeko deia, falta diren alkateei

Tolosaldeko Alkateen Mugimenduan dauden 25 alkatek elkarlanerako gonbita egin zieten otsailean bertan ez dauden alkateei, guztien artean «osasun

eredua eta behar diren azpiegiturak adosteko». Tolosa, Abaltzisketa, Belauntza, Berrobi, Larraul eta Andoaingo alkateak dira mugimenduan ez daudenak. «Guztion bat egitearekin bakarrik lortuko baitugu Tolosaldeko herritar guztiak eta Tolosaldeko udal guztiak, lortzen dugunarekin ados eta gustura gertatzea». Honela, alkateen mugimenduak hiru mahai antolatzea beharrezkoa izango litzatekeela proposatu zuen. Lehen mahaian osasun arloko pertsona kualifikatuz gain, gizarte zerbitzuetako profesionalak eta erakundeetako ordezkariak egotea proposatu zuten.

Bigarren mahaia gaur egungo errealitateari erreferatuko lioke. Asuncion ospitaleko langileen arazoaren konponbidean laguntzeko lantaldean Tolosaldeko Alkateen Mugimenduko ordezkariak egingo zuela lan esan zuten, eta klinikako langileen ordezkariekin eta gainerako erakunde inplikatuekin «elkarrizketak erraztuz» eta «beharrezko adostasunak lortzeko» aukera desberdinak mahai gainean jarri ariko litzatekeela lanean zehaztu zuten. Azkenik, azken lantaldeak ospitalearen kokalekua aztertuko zuela argitu zuten.

Toparen exigentzia

Martxoaren 17an agerraldia egin zuen TOPAk. Ospitale publikoaren auzian guztion parte hartzea eskatuz: «Eskualdean ospitale publikoa eratzearen prozesua erabat parte hartzailea izan behar duela exijitzen dugu. Erabateko kontsentsua duen ekimen batek soilik funtzionatuko du, eta osasun arloko sektore guztietako ordezkariak izan behar dute ahotsa ekimen horretan. Joera politiko guztietako ordezkariak bat egiteko eta eskuz esku lan egiteko gune bat izan behar du, hartzen diren erabakiak gardentasun osoz agertuko dituen».

LAB, Asuncioneko langileekin bat

Martxoaren 23an LAB sindikatuak agerraldia egin zuen Asuncioneko langileei babesa adierazteko. Sindikatuak esan zuen Asuncioneko langileen ondoan dagoela eta Eusko Jaurlaritzak eskualdearekin «zor historikoa» duela salatu zuen.

EH Bildu Tolosaldeko Alkateen Mugimenduekin
Apirilaren 7an Juan Karlos Izagirre EH Bilduren Gipuz-

koako bozeramaileak eta Gurutze Etxezabal EH Bilduren Tolosaldeko arduradunak babesa azaldu zioten Tolosaldeko Alkateen Mugimenduari. Osasunaren Nazioarteko Egunaren harira, Tolosako anbulatorioan egin zuten agerraldian, Etxezabalek beharrezkotzat jo zuen osasungintzaren eredua zehaztu eta adostasunak lortzea. Izagirrek bere partetik esan zuen COVID-19ak «mahai gainean» utzi dituela «sistemak dituen gabeziak», eta erakunde betebeharra dela desorekei aurre egitea: «Erakunde publikoetako ordezkariak desberdintasunei aurre egin, eta herritar guztiei kalitatezko osasun zerbitzua bermatu behar diete».

Ospitalea suhiltzaileen parkearen aurrean

Tolosako EH Bilduk prentsurrekoa eskaini zuen apirilaren 22an, Tolosako Udalak Osakidetza aldetik ospitale publikoaren kokapenaren inguruko jakinarazpena jaso zuela azaldu eta Tolosako Udalaren ardura baino eskualde mailako erabakia izan beharko lukeela salatu zuen oposizioko alderdiak. «Eskualdeko azpiegitura izanik, ezinbestekoa da kokapena ere, Tolosaldean eratu den Osasun Mahaian proposatzea. Guzti honen lanketan dabilta gure eskualdeko 25 alkate eta hainbat eragile, eta zentzu honetan, alkate mugimenduan bat gehiago izan beharko luke Tolosako alkateak ere, hori izango baita tolosarrok merezi dugun kalitatezko osasun zerbitzua lortzeko modu bakarra». Gainera, Alkateen Mugimenduak Gotzone Sagardui Osasun sailburuari bilera eskaera bat egin ziola jakinarazi zuen agerraldian bertan.

«Gardentasuna» eta «benetako parte hartzea» eskatu ditu TOPAk

Tolosaldeko Osasun Publikoaren Aldeko plataformak elkarretaratzea egin zuen apirilaren 24an, Tolosako Trianguloa plazan. Tolosaldeko 25 alkatek lan mahaian parte hartzeko proposamena egin zuten eta parte hartzea erabaki zuten: «Gure alea osasun arazo honi konponbidea bilatzen jarritz».

Ospitale publikoa Tolosan, alkatearen gutuna

Olatz Peonek maiatzaren 11n ATARIAN idatzitako gutuna da honakoa, ospitale publikoa ardatz hartuta: «Jaurlaritzak egokitzen jo du ospitalea suhiltzaileen

pareko aparkalekuko eremuan eraikitzeko proposamena, baina, azken erabakia hartu aurretik, beste hainbat alderdi kontuan izanda aztertzen ari gara lau eremuak, eta ondoren jarriko dugu abian Tolosako Hirigintza Plan Orokorren aldaketa». Eta honela gehitu, besteak beste: «Hirigintza Plana egokitu ondoren, Eusko Jaurlaritzak garatu eta zehaztuko ditu, bere eskumenen barruan, eskualdeko ospitale berriaren eredu eta ezaugarriak. Urrats asko geratzen dira oraindik, eta horiek erakunde bakoitzak, norbere eskumenen-eremuan egin beharko ditu; udal gobernu honek ez du etsiko eta lanean jarraituko du».

Larraul eta Berrobiko alkate sozialisten eskaera

Larraulgo eta Berrobiko alkate sozialistek eskualdeko osasun sareari buruz hitz egiteko jasotako bilera deialdia gaitzetsi zuten, maiatzean. Tolosaldea Garatzeneko lehendakariaren eskutik jaso zutela esan zuten, eta bi alkateen iritziz garapen agentziari ez dagokio gai hori lantzea.

Suhiltzaileen pareko aparkalekua lehenetsi da

Ekainaren 2an, Tolosako alkate Olatz Peonek jakinarazi bezala, Tolosako Udalak ospitale publikoaren kokagunerako azterketa amaituta, Iruña etorbidean dagoen kamioien aparkalekua egokiena dela ondorioztatu zuen. Bizilagunekiko eragina, lurraren jabetza eta mugikortasuna nabarmendu zituzten kontuan hartutako irizpideen artean. Jaurlaritzako ordezkariak azken fasean izandako lau eremuak ikustera etorri zirela azaldu zuen alkateak, eta bilerak egin zituztela udal teknikariek bertako teknikariek inoiz jaurkitutako, «koordinazioa erabatekoa izateko».

Udal gobernuaren jokabidea salatuz

Laster iritsi zen oposizioko alderdiaren erantzuna. Eskualderako ospitale publiko berriaren kokalekuari dagokionez, «berriro ere Tolosako alkateak aldebakartasunez jokatu duela» adierazi zuen oposizioko alderdiak. «Ez da onargarria eskualdeko osasun sistema eta azpiegituren inguruan lanean horrenbeste urtetan aritu diren talde politiko, eragile, herritar zein gainerako udalek, Tolosako udal



Gotzone Sagardui ospitalea eraikiko duten lekua bisitatzen.

gobernuaren erabakiaren berri prentsaren bidez jasotzea».

Sagarduik ospitalearen kokagunea bisitatu du

Ekainaren 7an, etorkizunean eskualdeko ospitalearen kokagunea izango den eremua bisitatu zuen Gotzone Sagardui Osasun sailburuak; Olatz Peon Tolosako alkatea, Tolosako Udaleko hainbat zinegotzi eta Osasun Saileko hainbat ordezkari izan ziren eskualdeko ospitalea eraikiko den eremuan, Iruña etorbideko kamioien aparkalekuan alegia.

Asuncion ospitalearen egoerari buruz galdetuta, sailburuak adierazi zuen osasun publikoak eta osasun pribatuak «bermatzen dutela» osasun sistema EAEn, eta beraz, «guztiontzako eremuak izango ditugu proiektu honi esker».

«Bilerak gazitik gehiago izan du»

Ekainaren 9an, Tolosaldeko Alkateen Mugimenduko kideek Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuarekin hitz egin zuten telematikoki. Tolosaldeko Alkateen Mugimenduak osasun ereduaren inguruan egindako lanketa bidali zion sailburuari eta bilera «gazitik» izan zuela esan zuten.

«Garrantzitsuena zerbitzuak dira»

Ekainaren 24an TOPAK berriro ere azpimarra zerbi-

tzuan jarri zuen eta Jabi Aranak hamar urteotako herri-tarren babesa txalotu zuen: «Ospitale publikoa egingo dutela esan dute, eta hori posible izan bada, hamar urte hauetan gurekin bidea egin duten pertsona horien babesarengatik da. TOPAk jasotako babes guztia eskertu nahi du, babesa ezinbestekoa izan baita».

%100 publiko izatea eskatu dute ELAk eta LABek Sindikatuak Asuncion ospitaleko langileak subrogatu eta egingo duten ospitale publikoko langile izatera pasatzeko eskatu zuten. Asuncion ospitaleko langileak ez dituen ospitale publikorik ez dutela onartu esan zituen uztaileko agerraldian.

Ospitalearen eraikuntzarako urrats bat gehiago Tolosako iraileko osoko bilkuran aho batez onartu zuten eskualdeko ospitale publikoaren eraikuntzarako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren al-daketa puntuala abiaraztea. Dokumentua osatu au-rretik egingo zutela esan zuten, diagnostia egin eta egon daitezkeen aukerak aztertu eta herritarren ekarpenak jasotzeko. Ondoren, informazioa jaso os-tean, dokumentua herritarrekin partekatuko zutela esan zuten eta osoko bilkuran onartu beharko zela.

«Gardentasun eza» salatu du TOPAk

Tolosaldeko osasun arreta hobetzeko prozesuan «modu demokratikoan parte hartu ahal izatea» exiji-tu zuten TOPAko kideek azaroaren 2an egindako agerraldian. TOPAk bere kezkak azaldu zituen: es-kualdeko ospitale berriak izango dituen hornidurak zeintzuk izango diren edota osasun proiektu berrian Asuncion ospitaleak zer egiteko dituen, adibidez. Izan ere, gai horien inguruan dagoen «gardentasun falta eta obskurantismoa» salatu zuten.


Espezialitate guztidun ospitale publikoa

Abenduaren 2an prentsa agerraldi bidez TOPAk gai-nerako eskualdeetan «behar bezala» funtzionatzen ari den ospitale eredua eskatu zuen Tolosalderako; Debagoienako ospitalea erabili zuen adibide modu-ra. «Espezialitate guztiak izango dituen ospitale publi-ko bat exijitzen dugu», esan zuten.

BOTIKINA LORTU DUTE AMAROTZEN

Amarotzen kokatuta zegoen farmazia Larra-mendi auzora lekualdatu ostean, Amaroazko Auzo Elkartek eskatuta, Tolosako Udalak Ama-rotz auzoan botikina jartzeko egokitasuna ba-loratzeko eskaera egin zion Osasun Sailari 2020ko urtarrilaren 29an. Uztailearen 27an, Far-mazia Zuzendariak aipaturiko eremuan botikina jartzea bidezkoa ez zela ebatzi ondoren, ebaz-pen honen aurkako errekurtoa jarri zuen uda-lak. Udalak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, Tolosa farmazia bulegoz horni-tuta egonda ere, urruntasunagatik eta gertuen dagoen establezimenduarekin harremanetan jartzeko zailtasunagatik, ontzat eman zen boti-kina ezartzeko eskaria eta urtarrilaren 5ean onartu zen ezarritako errekurtoa. Gauzak ho-rrela, Eusko Jaurlaritzak botikina jartzeko bai-mena eman zuen urtarrilaren 14an.

Botikinaren aldeko aldarria Amaroazko etxeetako balkoietan. **ATARIA**





Iruran iraillean 'Aulki Hutsak' ekimena egin zuten, pandemian hildakoak omentzeko. **J.M.**

OLATU BETEAN AMAITU DUGU URTEA

Semaforoaren koloreei begira aritu gara azken urtean. COVID-19an positibo eman dutenen kopuruekin gora eta behera aritu gara eta horrek muga asko ekarri ditu, arindu ere arindu dira, baina baita berriz ere gogortu ere; txertaketaren eta COVID ziurtagiriaren urtea izan da.

Kolore gorria, horia eta berdea. Hiru aukera horien artean ibili gara azken urtean. Batean edo bestean egon neurri murriztaileak ekarri dituzte, pasan den urte hasieran dena den, askoz murriztaileagoak izan ziren.

Eskualdean Euskal Herriko joera orokorrarekin egin dugu bat eta olatuaren gorabeherak antzekoak izan dira. Urtarrilean Tolosaldean 85 positibo atze-man zituzten eta hortik behera egin zuen positiboen kopuruak; 15, 17, 24... inguru horretan aritu ziren ko-

puruak otsaila bitarte. Otsailean zifra bakarreko kopurura jaitsi ginen, baina hortik aurrera berriz ere gora egin zuen. Martxoan igotzen hasi eta apirilean kopurua larritzeko modukoa zen. Hain zen egoera muturrekoa martxoan Ibarako Udalak baheketa bat egitea eskatu ziola Osasun Sailari. Jauralaritzak ordea, ez zuen beharrezkotzat jo. Maiatza eta ekaina lasai joan ziren, kopuruak behera egin baitzuen, baina uztaila eta abuztuan gora egiten hasi zen ere. Abuztuko goraldiak albiste zaharrak berri egin zituen eta zahar etxeetako egoera okertzen hasi zen

berriz ere. Lehen positiboak atzeman zituzten eta abuztua hasieran Fraisoroko egoiliar bat hil zen ere. Udako oporraldiaren ostean barealdia iritsi zen eta pandemiari lotutako neurriak egon bazeuden ere, asko lasaitu ziren, azaroa bitarte. Azaroak seigarren olatuaren gandorra ekarri baitzuen, eta hor gabiltza oraindik ere, olatua surfeatu ezinik. Azaroaren 18rako eskualdeko herri guztiak eremu gorrian zeuden ber-
 rriz ere, horrek pandemia hasi zenetik kaltetutako osasun zerbitzua zauritu zuen, berriz ere. Asuncion ospitaleak esaterako, abenduaren 14an iragarri zuen behar-beharrezkoak diren kirurjiak bakarrik egingo zituztela.

Pandemiaren garapena ikusita eta agintariekin eza-
 rritako mugak ikusita, bertan behera geratu dira az-
 ken hilabeteetan ohikoak izaten diren ekitaldi asko; 2021ean ez dira inauteriak ospatu, baina ezta udako herrietako jai gehienak ere, eta herri askotan kultur ekitaldiak antolatu dituzte jaien orde-
 z.

Mugak

Pandemiak sortutako egoerak osasun sisteman izan du eragin zuzena eta hori dela eta hainbat neurri hartu ditu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak azken hilabeteetan. Osasun Saila ez da bakarrik egon, dena den, eta Labi aholku batzordearen irizpideak jarraitu izan ditu. Urri hasieran desegin zuten Labi, eta batzordearekin batera neurri murriztaile gehienak bertan behera utzi zituzten, ez behin betiko, hala ere.

Urtarrilaren bigarren astean zorroztu zituzten or-
 dura arteko neurriak. Azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 kasu positibo baino gehiagoko intzi-
 dentzia tasa metatua zuten udalerriak itxi zituzten eta udal-
 erri horietan ostalaritza itxi behar izan zuten. Era berean, eremu gorrian zeuden herrietan joan-
 etorriak mugatu zituzten eta eskola kirola bertan be-
 heratu zuten. Aurretik indarrean zeuden neurriak mantentzea erabaki zuten ere, besteak beste, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako itxiera perimetrala mantent-
 zea, gehienez sei pertsonako taldeen bilerak bai-
 mentzea, gaueko mugigarritasuna 22:00etatik 06:00etara mugatzea eta musika zein ahots-entse-

TXERTAKETA ETA COVID ZIURTAGIRIA

2021 urtean txertaketa eta COVID ziurtagiria izan dira albiste. Eremu gorrien festan ari ginela txertake-
 ta iritsi da eta lehen aste horietan irregularitasunak izan ziren albiste. Bizkaiko Santa Marinako eta Basur-
 tuko erietxeetan txertatze prozesuan izandako irre-
 gularitasunen inguruko azalpenak eman behar izan zituen Gotzone Sagarduik, arauak zioena baino le-
 hen txertatu zirelako hainbat goi kargu, eta Tolosara egin zuen salto ika-mikak. Tolosako bi kasuren berri eman zuen agerraldi batean eta bi kasu horietan gauzak egoki egin ez zirela erantsi bazuen ere, ez zu-
 ten neurri berezirik hartu.

Gainontzean txertaketa prozesuak bere bidea egin du; adinka jarri dituzte txertoak, osasun langileak txer-
 tatu dituzte eta biztanleriarik edadetuena ondoren. Martxoan egin zen txertaketa masibo. Tolosako Uda-
 lak Beotibar pilotalekua Osakidetza-
 ren esku utzi zuen eta azken asteetan Emakumeen Etxean ari dira txer-
 toa ematen; bai hirugarren dosia, eta baita besteak ere. Haurrak izan dira txertatzen azkenak eta urtekari hau prestatzean 9 eta 11 urte artekoen txanda zen.

Txertaketarekin batera COVID ziurtagiria da albiste. Jada ostalaritzan, kultur jardueretan eta bestelako eki-
 taldian ari dira eskatzen, baita Asuncion ospitalean ere.

Tolosako Beotibar pilotalekuan eman zituzten txertoetako asko. R.C.G.



guak eta emanaldiak bertan behera uztea. Ostalaritza eta jatetxeak ixteko ordutegia, 20:00etatik 06:00etara mugatu zuten ere.

Urtarrila bukaeran udalerrri guztiak perimetralki ixtea eta pertsonen arteko bilerak lau lagunetara mugatzea (bizikidetza unitate bereko lagunak ziren salbuespena) erabaki zuen Labik. Intzidentzia tasa altuko –orduan azken 14 egunetan 100.000 biztanleko 500 kasuen langa jarri zuten 5.000 biztanletik gorako herrietan– ostalaritza establezimenduen itxiera mantendu zuten eta herri zein hiri horietan, bertan behera geratu zen taldeko kirola (profesionalen eta erdi-profesionalen kasuak dira salbuespenak). Labik hamabost egunez behin berrikusi du egoera, eta neurri gehiago ezartzea edo ezarritakoak malgutzea erabakitzen aritu dira.

Martxo hasierarekin neurrien malgutzea aurreikusi zuen Labik. Mugitzeko askatasun apur bat berreskuratuko zuten herritarrek eta udalerrrien konfinamendua bertan behera utzi zuten. Hiru lurraldeetako herrien artean mugitzea baimendu zuten nahiz eta Euskal Herriko eremu administratiboen artean ibiltzerik ez zegoen oraindik, gainerako murrizketek indarrean segitzen baitzuten: Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko konfinamendu perimetrala, esaterako. Neurriak gehiago malgutzeko helburu bat zehaztu zuen Iñigo Urkullu lehendakariak: Araba, Bizkai eta Nafarroako intzidentzia tasa 60 kasura mugatzea. «Hori da agertokirik egokiena; horrek izan behar luke euskal gizarte guztiaren konpromisoa».

500dik 400era

Martxoaren bukaeran alarma gorriak pizteko erabiltzen zuten tasa aldatu da, eta azken hamalau egunetan 100.000 biztanleko 500 kasu baino gehiago zituztenak baino, 400 kasu zituzten herri eta lurraldeetan itxiera perimetrala ezartzea erabaki zuten ondoren. Tolosaldean ez zegoen 400dik gorako tasa zuen 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk. In-

Tolosan 2021 urte hasieran ostalariek egindako mobilizazioetako bat. J.A.D.



tzidentzia tasa hori zuten herrietan tabernen eta jatetxeen barruan egoteko ordutegiak mugatu zituzten.

Ekainean itxiera perimetrala eta etxeratze agindua bertan behera utzi zituen EAEko Auzitegi Nagusiak. Epaila batek erabaki zuen Jaurlaritzak ez zuela esku-menik herritarren mugikortasuna mugatzeko, behin alarma egoeraren legea indargabetu eta gero. Etxeratze agindua ezartzeko modurik ere ez zuela zehaztu du. Epaitegiak hartutako erabakiaren ondotik ostalaritzak 22:00ak arte irekita egoteko aukera izan zuen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak ez zion helegiterik aurkeztuko Auzitegi Nagusiak hartutako erabakiari, eta onartu zuen horrek ebatzi zuena. Maiatzean Espainiako Gobernuaren alarma egoera amaitzean bukatu ziren ere mugikortasun mugak, etxeratze agindua eta bilkurak lau pertsonetara mugatzeko araua.

Maiatzean LABI batzordeak hainbat neurri malgu-

tu zituen 22:00etatik 24:00era luzatu zuten ostalari-
tzak nahiz merkataritzak irekita eduki ahal izateko
muga, eta kultur jardueren kasuan ere, gauerdia
arte egiten hasi ziren.

Uztailean ordura arte hartutako neurriak manten-
tzea erabaki zuten eta horri gehitu zion neurri berria:
gauerditik 06:00etara bizikideen topaketak bakarrik
onartuko zituzten kalean. Hala, gauez jende multzo-
ak elkartu espazio publikoetan elkartzea debekatu
zuten.

Abuztuan albiste gehiago: tabernetan mahai ba-
koitzean zortzi pertsona esertzeko aukera zabaldu
zuten eta esan zuten txertatuta zeuden ikasleek ez
zutela berrogeialdirik egin beharko.

Urrian etorri zen Labiren azken erabakia. Maskararen
erabilera ez aldatzea erabaki zuen, baina normaltasuna
itzuli zen aisialdi eta ostalaritzara. Pandemiari aurre
egiteko Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurriak indar-
gabetzea erabaki zuten beraz eta baita Labi desegitea
ere. Dena den, ordurako Omikron zegoen denen aho-

tan. Birusaren azken aldaera hori ordura arteko gai-
nontzeko aldaerak baino azkarrago zabaltzen ari da
eta mundu mailan ezegonkortasuna areagotu du.

Eguberrien bueltan debeku jakinik ez du egin
Jaurlaritzak, baina bai gomendapenak. «Aurrera egi-
tea eragiten duten egoerak» ohikoak izaten direla ar-
gudiatuta, «gomendio bereziak» eman ditu duela
gutxi Gotzone Sagarduik. Besteak beste, eskatu du
«ospakizunetarako talde egonkorra eta txikia» sor-
tzea, gehienez ere hamar pertsonakoa edo bi familia
unitatekoa. Ostalaritzako establezimenduetako ma-
haitan gehienez ere sei lagun biltzea ere eskatu du,
eta, ahal dela, kanpoan. Topaketa handiak sor dai-
tezkeen egoerak galarazteko ere gomendatu du, eta
aipatu dituzte, besteak beste: enpresetako afari edo
bazkariak, kotilioiak eta jaiak. Pilaketa handiko beste
zenbait gune ere aipatu ditu Osasun Sailak: esatera-
ko, ikastetxeak, gurtza lekuak eta merkataritza gu-
neak, horietan «zuhurtziaz jokatzeko» eskatuz die
herritarrei.

OSTALARIEN HASERREA ETA HERRITARREN BABESA

Ostalaritzak gorabehera asko izan ditu pandemia
hasi zenetik. Tabernen ordutegia murriztu, zabaldu,
malgutu, mahaien edukierak zorrotzu... askotariko
neurriak ezarri dizkiete eta bien bitartean laguntza
zuzenak eskatzen joan dira.

Urtea Amasa-Villabonako intzidentzia tasa altua-
rekin hasi zen, ondorioz ostalaritzak itxi egin behar
izan zuen. Amasa-Villabonan hasi ziren gorabeherak,
baina eskualdeko herri asko pasa dira azken hilabe-
teetan egoera horretatik.

Bien bitartean manifestazio jendetsuak egin dira
Amasa-Villabonan eta Tolosan, eta bestelako ekital-
diak egin dituzte ere: auto-karabanak, bertso saio-
ak...

Gipuzkoako Foru Aldundiari plan bat garatzeko

eskaera luzatu zioten ostalariak, zuzeneko lagun-
tzak, zerga abantailak eta positiboek eragindako
itxierak adostu ahal izateko. «Komunikazioak nahi-
koa denborarekin izatea eskatzen dugu. Zergatik
ematen dira laguntzak hain berandu? Laguntzak bai-
no gehiago konpentsazioak behar ditugu. Negozio
itxiek galera handiak besterik ez dituzte sortzen»,
esan zuten.

Lan egiteko aukera eskatzen zuten ostalariak, eta
funtsezkoak zirela argudiatu zuten. «Guztiok dakigu
kudeaketa ez dela erraza, baina, era berean, denok
dakigu gauzak ez direla behar bezala egiten ari». In-
demnizazioak eskatzeaz gain, ezartzen zaizkien neu-
rriek gogor eragiten dietela azaldu zuten. «Ezin dugu
horrela jarraitu, orain ireki, orain itxi. Diru laguntzak
egongo zirela hitzeman zuten, baina oraingoz ez
dugu horrelakorik jaso», salatu zuten mobilizazioe-
tan.

EZOHIKO EGOERARA EGOKITU BEHARRA

2021erako aurrekontua prestatzerako orduan, gizarte zerbitzuetan jarri dute indarra udalek, kasurik gehienetan aurreko urtekoa handituz; horrekin batera, tokiko ekonomia suspertzeari eta kultur jarduerak antolatzeari ere garrantzia berezia eman diote

C OVID-19aren pandemiak eragin nabarmena izan du ekonomian. Horren erakusle, 2020ko uztailaren bukaeran 57.000 lanpostu suntsitu zituen Euskal

Herrian eta errekuiperatuz joan bazen ere, 17.500 langabetu batu ziren 2020 osoan. BPGari dagokionez, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, %19,8 jaitsiarazi zuen pandemiak 2020ko bigarren hiruhilekoan, eta urte osoa kontuan hartuta %9,5.

Bada, datu gordinak ikusita eta uneak erakusten zuen ziurgabetasunagatik, 2021 urtea kudeatzeko unean, ezohiko aurrekontua eta zuhurtziaz eginikoa prestatu dute udalek. Kopuruz aurreko urtekoaren antzekoa edo baxuagoa izan da kasurik gehienetan, batez ere foru funtsean izandako jaitsieraren ondorioz.

Hala, ekonomian eta ondorioz gizartean eragindako kaltea arintzea izan da lehentasuna, gizarte zerbitzuen sailean indarra jarritz. Horrekin batera, tokiko ekonomia suspertzera ere bideratu dute aurrekontuaren zati handi bat.

«DIRUA ERABILI EGIN BEHAR DA HERRIAREN BEHARRAK ASETZEKO»

Tolosaren kasuan, 2021erako onartutako aurrekontua 27 milioi eurokoa izan da, aurreko urtekoa baino %1,24 txikiagoa. «Egoerak ezarritako beharretara egokituz» orekatu dute, eta aurrekontu osotik, 5 milioi euro baino gehiago bideratu zituztela Gizarte Zerbitzuetara eta inbertsio soziala %9 areagotu zutela nabarmendu dute. «Aurrekontuko aldaketa handiena izan da. Gaur egungo egoeran, gora egin dute gizarte beharrek, eta horri erantzuteko egin da igoe-ra».

Bestalde, behar berriak sortu ahala, larrialdi egoerari aurre egiteko, soberakina erabiltzea edo zorpetzeak moduko aukerak mahai gainean jarriko dituztela adierazi zuten, «erakundeek ez baitute aurrezteko beharra, dirua erabili egin behar da, herriaren beharrak asetzeko».

Hain justu, 2021eko maiatzean ia 4,9 milioi euroko



Saiok egin dituzte Zumarditxiki proiektua lantzeko. J.A.

aurrekontu gehigarria onartu zuten, «ezohiko egoerari aurre egiten jarraitu eta aurreikusitako proiektu estrategikoak eta hirigintza lanak garatzeko».

Bada, Tolosako Udalak prestatutako aurrekontuak lau oinarri nagusi izan ditu. Batetik, gizarte babesa bermatzea, larrialdietarako laguntzen, familientzako diru laguntzen, esku-hartze programen nahiz etxez etxeko arreta zerbitzuaren bitartez edota alokairuaren ordainketa errazteko diru laguntza lerro berria sortuz.

Bestetik, hiri ekonomia suspertzea, Suspertu Tolosa kanpainaren eta bonuen kanpainaren bitartez, besteak beste. Herriko dinamizazioa indartzea izan da beste ardatzetako bat, eta kultur ekitaldiak antolatzen jarraitzeko helburua azaldu zuen udalak, «kultura babestu eta komunitatea sendotzeko».

Laugarren oinarria etorkizuneko Tolosaren oinarriak lantzea izan da. Tolosatzen egitasmoa eta Tolosatzen Eskola Irekia kokatzen dira puntu horretan. Hain justu, azken honetan jasotako ekarpenak aurrekontuan txertatu dituztela azpimarratu zuten udaletik.

2021erako proiektu estrategikoei dagokienez, Zumardi Txikia, kultur etxea, Emakumeen etxea, etxebizitza hutsak birgaitzeko diru laguntzak edota Gorriti plaza eraberritzea nabarmendu ditu udalak.

«AHALEGIN HANDIAGOA EGITEKO UNEA DA, EZ GELDIRIK EGOTEKO»

Urtarrileko osoko bilkuran onartu zuen Amasa-Villabonako Udalak 6.859.326 euroko «ezohiko» aurrekontua 2021erako. «COVID-19ak eragindako krisia 2021ean areagotu egingo dela aurreikusten dugu eta horregatik uste dugu ez dela hau murrizketak egiteko garaia. Ez da geldirik egoteko momentua, ahalegin handiagoa egitekoa baizik, pertsonak erdigunean jarri eta amasar eta billabonatar guztien oinarriko eskubide guztiak bermatu nahi ditugu, inor bazterrean utzi gabe», adierazi zuten udaletik.

Bada, Gizarte Zerbitzuen sailaren aurrekontua %7,6 igo zutela nabarmendu zuten, COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta soziala arintzeko: «Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara bideratutako dirua %32 igo dugu eta ezohiko laguntza lerro berri bat sortu dugu merkataria, ostalari eta herritarren beharrianak bermatu ahal izateko», esan zuten.

Osasun krisiak gogorren kolpatu duen sektoreetako bat kulturarena izanik, arlo horretan gehiago inbertitzea erabaki, eta sailaren aurrekontura %7,4 bideratu dute. Era berean, Ingurumen sailak %15,5eko igoera izan du, «besteak beste, errekek garbitzeko



eta Amasamendiko basoetan zuhaitz aldaketak egiteko, eta baita, hondakinen kudeaketaren garestitzeagatik ere».

Udalak 646.588 euro aurreikusi zituen inbertsioak egiteko, eta hiru proiektu nagusi nabarmendu dituzte: kiroldegiko teilatua birmoldatzea, eskola publikoko eraikinetan egokitzapenak egitea, eta herriko argiteria led sistemara egokitzen jarraitzea.

Horrekin batera, aurreko urtean pandemiagatik etenda geratu zen prozesu parte hartzailea berreskuratu du udalak. Herritarrek hamaika proiekturen artean erabakitze aukera izan dute herri galdeketa, eta bolatokia estaltzea eta padel pista eraikitzea aukeratu dute. 2022an gauzatzeko konpromisoa hartu du udalak.

«LEGEALDI HASIERAKO PROIEKTUAK ALDE BATERA UTZI BEHAR IZAN DITUGU»

Alegiako Udalak, bestalde, 2.077.791 euroko aurrekontua onartu du, aurreko urtekoa baino %5,17 txikiagoa.

Gizarte Zerbitzuetara bideratutako gastuak eta pandemiak eragindakoak izan direla bereziki igo direnak nabarmendu zuten. «Hori da gehien kezkatzen

gaituena, egoera gehiago okertuko dela aurreikusten baitugu», esan zuten. Era berean, udala kezkatuta agertu da herritarren egoerarekin: «Gure langabezia tasa latza da, beharra duen jende asko dugu eta gizarte zerbitzuetan eskaerak gorantz doaz».

Zaintza eta gizarte babes publikoa, enplegu sustapena eta krisiaren ondorioei aurre egiteko neurriak izan dira, bada, aurrekontuan «arreta bereziz» landutakoak.

Udaletik esan zutenenez, guztia aldrebestu die COVID-19ak. «Legealdi hasieran genituen asmoak eta proiektuak, gure pozgarri zirenak, alde batera utzi behar izan ditugu. Medikuei etxe berria egitea aurreikusten zen, baina, azkenean ez da egingo. Duguna berri beharko dugu, eta igogailu gabeko mediku etxea dugu». Eta, aurrekontu baxuagoa izatearekin, arlo askotan jaitziera egin behar izan dute.

«GIZARTE ZERBITZUAK ETA HERRITARREKIN HARREMANAK SENDOTU NAHI DITUGU»

Anoetan, berriz, 2.424.000 euroko diru saila izan du udalak 2021 urtean, iazkoaren oso antzekoa. «Azken urteetan tentuz kudeatu ditugu kontuak eta horri esker, orain krisi egoeran eta foru funtseko ekarpenak



Anoetako plaza irisgarriago egiteko obrak egin dituzte. **ATARIA**

jaitsita ere, eutsi diezaiekegu proiektu nagusiei», azaldu zuten.

Osasun krisiaren testuinguruan gizarte-ongizate zerbitzuak hartzen duen esanguran jarri dute azpi-marra. Hala, aurreko urtean bulego berria atondu zuten udaletxeko beheko solairuan eta teknikariaren laguntzailea kontratatu zuten, eta 2021ean Gizarte Zerbitzuen saileko teknikariaren lanpostua lanaldi osokoa izatera pasatu da. «Zerbitzua sendotu eta herritarrekin harremanak indartu nahi ditugu».

Udaleko sailen egitura berrikusi eta berrantolatze-ko lanean aritu ostean, Lurralde departamendua osatu dute, Hirigintza, Landa Garapena eta Ingurumeneko sailak barne biltzen dituen.

2021eko aurrekontuaren %8,2 inbertsioetara bideratu dute, 180.000 euro inguru. Kontsumoa murrizteko udal eraikinetan auditoria energetikoa egitea aipatu dute, eta ingurumenarekiko sentsibilizazioan sakontzeko parte hartze prozesuak bideratzea.

Etxebizitza hutsak merkaturatzea, Modesto-Enea eremua erosi eta babestea, Ateaga elkartearen eta Igerabide kalearen arteko pasealekua irekitzea, kaleak garbitzeko ekortzaile elektriko bat erostea, udaletxeko artxiboa egokitzea edota landa bideak konpontzea, irisgarritasuna hobetzea eta inbentariatzea nabarmendu dituzte inbertsioen artean.

«HERRITARREN PROPOSAMENAK BILDU, HERRIAK ERABAKITZEKO»

4.674.064 euroko aurrekontua onartu dute Ibarran 2021erako, aurrekoa baino baino 512.967 euro gutxiago. Kasu honetan ere, gizarte zerbitzuei eman diete lehentasuna, horiek «behar bezala bermatu» ahal izateko.

Inbertsioei dagokienez, aurreko urteetan hasitako Piperraren bideari jarraipena ematea aipatu dute, plazan hasi eta amaitzen den 3,5 kilometroko ibilbide zirkularraosatuz.

Izaskun auzotik Uzturrera doan bidea konpontzea, ur bideak txukuntzea edota hondakin sakabanatuak biltzeko enpresa bat kontratatzea ere aipatu dute.

Horrekin batera, herriko ondare historikoa berreskuratzea eta berdintasunaren alde lanean jarraitzeko II. Berdintasun Plana martxan jartzea ere nabarmendu dute.

Bestalde, inbertsioetarako legealdi plan bat egitea izan da udalaren asmoa, 2023ko maiatzera bitarteko proiektuak zehazteko, eta hori parte hartze prozesuen bitartez egitea bultzatu dute, «herritarren proposamenak eta iritzia biltzeko, herriak erabakitze-ko».

Irudi eta web orri berria ditu Tolosaldea Garatzenek

Aldaketekin, herritar, erakunde eta enpresetara gerturatu nahi du

Garai berrietara egokitu nahi izan du 25 urte baino gehiago dituen Tolosaldea Garatzen Garapen Agentziak. Eskualdea bultzatzen eta garatzen egiten du lan. Anitza da Tolosaldea, eta aniztasunean oinarrituz saretu du eskualdea: «Pieza guztiak lotuz eraikitzen baita herri baten etorkizuna». Enplegua, Enpresak, Turismoa, Udalak, Ekintzailatza, Aniztasuna eta Kontsumo Bulegoa biltzen ditu garapen agentziak, eta marka berriaz gain, *Tolosaldeagaratzen.eus* webgunea berri zuten urtarrilean, eta baita sail bakoitzari dagokion irudia ere.

46.000 biztanle, 28 udalerri, 4.000tik gora enpresa-establezimendu eta 54 industrialde. Hori da Tolosaldea, eta saretze lanean ari dira gaur egun. Herritar, enpresa eta erakundeengana gehiago gerturatzea dute helburu, eta komunikazio lan sakonago bat egitea.

«Web orria irisgarria, erakargarria, erabilerraza eta be-



rritzailea izatea nahi dugu», esan zuen Joxe Luis Urdangarin garapen agentziako arduradunak aurkezpenean. Guztiz itxuraldatu dute webgunea, informazioa modu antolatuagoan eta sakonago eman ahal izateko, eta gailu guztietara egokitzeko. Funtzionaltasun gehiago ere jarri dizkiote, eta gauza askoren artean, lan-eskaintzak eta lan-poltsak argitaratzen dituzte, CV-ak uzteko aukera ematen du, eskualdeko enpresen proiektuen berri ematen dute, Lehiberriko aretoak alokatu ahal dira edo kontsumo alorreko zalantzak argitzen laguntzen dute. Sortze prozesua, Chroma Estudioaren lana izan da.

Elkar-ek Adunan kokatu du bere egoitza nagusia

Elkar Fundazioak Adunan kokatu du bere egoitza nagusia. Unipapel enpresa zena erosi eta pabiloia egokitzeko lanak egin dituzte urtean zehar. Egoitza nagusiaren barruan zerbitzu zentral guztiak jarri dituzte, logistika eta biltegia barnebiltzen dituen banaketa saila eta baita argitaletxearen zerbitzu guztiak ere. Berez, egoitza nagusia Usurbilgo Michelin enpresarenak ziren lurretan ziren kokatzekoak, baina pandemiak proiektua gelditzera eraman zituen eta «inbertsio txikiagoa behar duen beste planteamendu bat» egin dute.

Agour Etxea gaztandegia inauguratu dute Lizartzan

Heletan duela 40 urte sortu zen Agour Etxea gaztandegiak proiektua indartu eta zabaldu egin du Lizartzan. Lantegi berrian gazta berriak egitearen aldeko apustua egin dute, besteak beste, Idiazabal gazta eta gazta urdina eginez. Lizartzako Agour Etxea gaztandegia azaro hasieran inauguratu zuten, Iñigo Urkullu lehendakariaren bisitarekin. Agour Etxeak artzaintzaren kultura jaso eta esnea ardatz hartuta, esnekien dibertsifikazioa bultzatzen duela azaldu zuten ekitaldian. Produktu bat baino gehiago ekoizten dituzte.



ANOETA ITURTXULO

28 ETXEBIZITZA, GARAJE ETA
TRASTELEKU
AZKEN 2 ETXEBIZITZAK!

2 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
BAJUAK, 30M2-KO TERRAZA
SUKALDEA BARNE
GARAJEA ETA TRASTELEKUA
AUKERAN

210.000 €
-tik hasita



DATORREN PROMOZIOA

BERASTEGI – ATEGI II

12 ETXEBIZITZA TASATU
3 LOGELA ETA 2 BAINUGELA
GARAJE ITXIA BARNE
EGIN ZURE ERRESERBA!



169.627€-tik hasita

Bi lan heriotza izan dira eskualdean

Lizartzako Basalan Arrospiden lan egiten zuen langile bat hil zen urtarrilean Ezkio-Itsason lanean ari zela eta Adunako Kelsen enpresan langile bat hil zen bihotzekoak emanda, maiatzean.

Urteak bi lan heriotza utzi ditu Tolosaldean. Urtarrila bukaeran izan zen lehena. Ezkio-Itsason gertatu zen ezbeharra, baina Lizartzako Basalan Arrospide enpresan egiten zuen lan langileak. Aurretik moztutako enbor baten adarrak kentzen ari zela izan zuen istripua, eta 53 urte zituela hil zen. ELA sindikatuak esan zuenez Gipuzkoan urteko lehen lan heriotza izan zen eta Euskadiko bigarrena. Aurreko urteari, 2020ari, begira jarri zen LAB eta esan zuen lan istripuen gaia mahai gainean jarraitzen zuela. «Esan gabe doa 2020ak utzi duena ez dugula hamarkadetan ahaztuko, baina ezin dugu onartu egoera honek bizitzaren gainontzeko atal guztiak estaltzea».

Maiatzean izan zen bigarren heriotza eta hori eskualdean bertan. 59 urteko langile bati bihotzekoak eman zion Adunako Refractarios Kelsen enpresan eta bertan hil zen. Lanean bihotzekoak edo zirkulazio gaitz baskularren bat ematea ez zela kasualitatea esan zuen LABek, «ez da izaten lanarekin zerikusirik ez duen zer bait, patronalak dioen bezala». «Jakina da horrelako gertaerak baldintza zehatz batzuen pean gertatzen direla. Lanean jasotzen diren presioak edo estresa bihotzekoak eta zirkulazio gaitzen ezinbesteko faktoreak dira eta gehienetan, erabakigarrienak, bizi eta lan baldintzekin batera». Ordurako urtea hasi zenetik gutxienez 21 pertsona hil ziren lanean edo lanaren ondorioz Euskal Herrian.

VILLABONAKO LABEZAINI ETA ERRETIRODUNEN TABERNARI ALEGIAN, AGUR

Villabonako Kale Nagusiko Labezain okindegiaren azken eguna izan zen irailaren 30a. Karlos Agirrebengoa *Kali* okinak erretiroa hartu zuen eta eguerdian, omenaldi xumea egin zioten Oria merkatari elkarteko kideek Agirrebengoiari, eta haren amari, Miren Ibargureni. Horrenbestez, Villabonan geratzen zen azkeneko ogi-lantegia desagertu da. Amasa-Villabonako Udalak esker hitzak izan zituen Labezaingo langileentzako: «Eskerrik asko Kali, Miren eta Labezaingo langile guztiei. Urte luzez egindako lanagatik eta herriari egindako ekarpen handiagatik».

Alegiako plazan dagoen Erretirodunen tabernak



ere ateak itxi ditu 2021ean, 20 urte eta gero. Alegiako Mari Jose Leundak 20 urtez eduki zuen herriko Erretirodunen taberna zabalik eta erretiroa hartzeko unea iritsi zitzaion. Alegiako erretirodunen egoitzako tabernaren kudeaketa lehiaketa publikora atera zuten ekainean.



LAN BALDINTZA DUINAK ESKATU DITUZTE

2019ko abenduan amaitu zen Tolosako Pasaban SA

enpresako langileek arduradunekin azken aldiz sinatu zuten lan-hitzarmena. Orduz geroztik, langileek ez zuten enpresa zuzendaritzarekin adostasun batera iristeko modurik ikusi. Hori dela eta, ordura arte izan duten lan-hitzarmena berritu, eta enpresak aurrera-pausoak ematea eskatzen zuen langile batzordeak. Otsailean lortu zuten hitzarmena berritzeko aurreakordioa.

Tolosako Udaleko langileak protesta astea burutu zuten ere. Txaleko horiak jantzita aritu ziren lanean astebetez eta sinadura bilketa bat egin zuten ere langileen artean, gero, udaleko ordezkari politiko eta alderdietako ordezkariari helarazteko. Udal gobernuak urteetan «erabateko adostasunez» ezarri diren hainbat neurrietan, esate baterako, erretiroa aurreratzeagatik ematen diren sarietan, «murrizketak egitea erabaki duela» adierazi zuten, besteak beste.

Ez dira horiek azken hilabeteetan eskualdean egon diren lan gatazka bakarrak. Ibarrako Fudike lantegiko langileak lanuzteak egin zituzten «enpresa hitzarmen duina negoziatzeko borondatea» eskatuz. Izan ere, 2020 urteaz geroztik ari ziren langileak hitzarmena sinatu nahian. Bi orduko geldialdia egiten aritu ziren ere Ehneler zerbitzu kooperatibako langileak. «Azken urteetan Ehnelerreko langileak pairatzen ari garen errespetu falten, inposizioen, lan baldintzen okertzearen, arrazoitu gabeko lanpostu aldaketen eta abarren aurrean ezin dugu gehiago», esan zuten.

Carrefour Marketeko langileen protesta izan da urteko azkena. ELA sindikatuak esan zuen Grupo Champion enpresaren hitzarmen kolektiboa oso txarra dela eta lan baldintza duinak eskatu zituzten. Gabonetako egun berezietan lehenago ixteko eskaera egin zuten langileek, baina ez dute erantzunik jaso.

LANUZTEAK HAURRESKO- LETAN ETA ZAHAR ETXEETAN

Greba egunak eta elkarretaratzeak egin dituzte az-

ken hilabeteetan Haurreskolak Patzuergoaren hainbat eskolatan. Otsailean greba egunak izan zituzten haur eskolatan eta deialdiak jarraipen zabala izan zuen (%72). Sindikatuak esan zutenez «lotsagarria eta erantzukizun politiko eskasa izatea iruditzen zaigu EAEko Hezkuntza Saileko arduradunen negoziatzeko borondate eza eta langileon aldarrikapenei muzin egitea». Izan ere, mahai negoziatzailean Hezkuntza Sailak Haurreskolen bideragarritasuna zaltzan jarri zuela salatu zuten eta «2018ko irakaskuntza publikoko kolektibo guztien mobilizazioen barruan egindako dinamika luzearen osteko akordioen artean, Haurreskolak Patzuergoan sinatutakoa soilik ez dagoela indarrean esatera ausartu ziren inongo lotsarik gabe». Haur eskoletako langileek Haurreskolak Patzuergoaren doakotasuna eskatzen zuten eta Hezkuntza sailean sartzea; akordioak errespetatzea eta betetzea; lan hitzarmen berriaren negoziazioa abiatzea; langileen behin-behinekotasun tasarekin bukatzea eta lanpostuak egonkortzea; irakaskuntza publikoan Osakidetzak egiten duen Norbera Babesetako Ekipamenduen horniketari Haurreskolak Patzuergoaren gehitzea; eta aurrekontua handitzea.

Gipuzkoako helduen egoitzetako egoera «larria» salatzeke lanuzteak egin dituzte ere. Langileek aspalditik martxan daukaten borroka prozesuaren jarraipena izan dira 2021eko lanuzteak. «Osasun larrialdia dela eta, jadanik larria zen egoera jasanezina bihurtu da Gipuzkoako nagusien egoitza gehienetan; gehiegizko lan-kargak eta egoiliarrei behar duten atentzia eskaintzeko denbora falta, soldata-arrakalak, egutegietan egiten diren etengabeko aldaketak... Langileen eskubideen urraketen adibide argiak dira guzti hauek».



30 URTE, EUSKARA HAUSPOTZEN



1991.a urte oparoa izan zen euskararen alorrean. 30 urte bete dira aurten euskararen erabilera normalizatzeko udal-ordenantza onartu zutela Amasa-Villabonan; urte horretan bertan, Tolosan, Galtzaundi aldizkariaren lehen zenbakia kaleratu zuten. Gainera, urte berean Uema sortu zuten; eta aurten, eskualdeko bost herri batu zaizkio.

Mila bederatziehun eta laurogeita hamakako azaroaren 7an, Amasa-Villabonako udalbatzak urrats oso garrantzitsua eman zuen; alde batetik, udala bere erakunde publiko gisa euskalduntzeko, eta bestalde, herria euskalduntzeko hizkuntza politika eraginkorrak martxan jartzeko. Gainera, urte hartan, euskara bultzatzeko araudia aho batez onartu zuten, eta geroztik indarrean jarraitzen du. Hori dela eta, aurten euskara erabilera normalizatzeko udal-ordenantzaren 30. urteurrena ospatu dute.

Lan horri esker, udalak «hizkuntza politika eraginkorrago bat garatzea» ahalbidetu zuela adierazi zuen Xabat Laborde euskara zinegotziak urteurren ekitaldian. «Urrats hori aitortu, udal batzari eskertu, eta urte hartan euskararen normalizazioaren bidean ibilbide berri bat hasteko lortu zen adostasuna azpimarratu nahi izan dugu». Horrez gain, orduz geroztik ere egin den lana balioan jarri nahi izan dutela aipatu zuen, eta gaur egun arte lanean aritu direnei eskertza adierazi zien: «Hemen ez da ezer bukatzen, eta lanean jarraitzen dugu euskararen alde».



Uemak, 30 urte bete bertan, maiatzean Gurea antzokian egin zuen ekitaldiko irudia. J.A.

Besteak beste, aipamen berezia egin zioten orduko euskara zinegotzia izan zen Xabier Zabalar. «Gure artean dauden euskara jakitunak geroz eta gehiago dira», adierazi du Zabalak. Udalak emandako datuen arabera, azken 30 urteetan asko hazi da euskararen ezagutza, baita erabilera ere, eta gaur, Amasa-Villabonan bizi direnen ia %80 euskalduna da, euskara hitz egin eta ulertzeko gai baitira.

Eskualdeko bost udalerri berri Ueman

Hain zuzen, Hego Euskal Herriko beste 90 herriekin batera, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea osatzen du Amasa-Villabonak. Maiatzean ospatu du Uemak urteko lehen batzar nagusia, 30 urte bete dituen urte berean. Batzar horretan, Zizurkil eta Amasa-Villabona bera mankomunitateko kide izendatu dituzte. Aiztondo bailarako bi herriak, ordea, ez dira

2021ean Ueman sartu diren eskualdeko herri bakar-rak. Maiatzean bertan, Uemako kide izateko erabakia hartu du Elduaingo Udaleko osoko bilkuran.

Azaroan, bestetik, urrats bera eman dute Ibarako eta Bidania-Goiazko udalek. Azken hauek gehituta, Tolosaldeko 21 udalerri dira mankomunitateko kide. Abenduaren 18an egin du Uemak batzar nagusi berria, Idiazabalen, eta bertan aztertu dituzte herri berrien eskaerak. Gaur egun, 93 udalerri dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide. Tolosaldeari dagokionez, 21 udalerri dira jada Uemako kide. Hala ere, azken urteetan euskararen erabilerak atzerakada izan duela aipatu dute udal guztiek, eta horregatik, hori indartzen jarraitzeko konpromisoa berretsi dute.

Galtza handietan sartu zuten hanka

Duela 30 urte, 1991ko maiatzaren 26an argitaratu zen Galtzaundi aldizkariaren 0 zenbakia. Sortu berria zen Galtzaundi Euskara Taldea, euskararen normalizazioaren aldeko urratsak eman eta Tolosaldean proiektua sendotu duena, eta abian jarri zuen lehen proiektu garrantzitsuenetakoa izan zen eskualdeko albisteak bilduko zituen hilabetekaria martxan jartzeara. Tolosaldeko berriak lantzen hasi ziren, inguruko herrietako gertakizunei eta protagonistei orrialdeak eskaintzen; euskaratik eta euskaraz, eta gaur egun gertukoak ditugun tokiko komunikabideen aitzindaria izan zen.

Efemeride hura gogorazteko, aldizkariaren historia jasotzen zuen erakusketa prestatu zuen euskara taldeak. Erakusketa ibiltaria izango bada ere, estreinakoz Tolosako Aranburu jauregian egon da ikusgai, urrian zehar. Aurrerago, eskualdeko herri gehiagotan erakustea da asmoa. Hedabidearen has-tapenak, historia, bitxikeriak, lorpenak, eta beste zenbait xehetasun biltzen dira bertan.

Erakusketa, ordea, ez da hiru hamarkadetako ibil-bidea aitortu eta ospatzeko ekimen bakarra izan. Zaldunita egunean, Galtzaundi, 30 urte emanaldi berezia egin dute Leidor aretoan, Inauterietako musikan euskarak duen garrantzia azpimarratuz. Et Incarnatus orkestrak eskaini du kontzertua, hainbat musikari eta kantari ezagunen kolaborazioekin.



HAINBAT ERAGILEK EUSKAREN AHOLKU KONTSEILUA SORTU DUTE TOLOSAN

Tolosako udalak duela 25 urte baino gehiago sortu zuen euskara batzordea, udalak eta eragileak elkarlanean euskararen sustapenerako ekintzak garatzeko. Aurtengo uztailean, berriz, herri administrazioaren eta gizarte eragile guztien artean hizkuntza politika partekatua sustatzeko eta hizkuntza normalizazioaren alorrean lanean jarraitzeko, hainbat eragilerekin elkarlanean, Euskararen Aholku Kontseilua sortu dute.

Besteak beste, azaroan Tolosako Udaleko osoko bilkuran aho batez onartu da Tolosako Euskara Sustatzeko Ekintza Plan berria, azken hilabete hauetan diseinatzen aritu direna; hala, 2019. urtera arte martxan egon zen plana berritzea lortu dute. Behin plan berria onartuta, indarrean sartzen denean, bertan bildutako erronkak eta helburuak betetzen diren ala ez ziurtatzea izango da datorren urteetan kontseiluak izango duen zeregin nagusia.

Hizkuntza politikako beharrei erantzuteko tresna «egoki eta eguneratu» bat izatea nahi dute kontseilua, «lan egiteko modu berri batekin». Hain justu, ondorengo norbanako eta eragileek osatzen dute: udaleko euskara zinegotzia, euskara saila, udal talde politiko guztietako ordezkariak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, Galtzaundi euskara taldea, Herriki-de, Laskorain, Samaniego, Inmakulada eta Orixe hizkuntza zentroak eta TOLOSALDEKO ATARIA.



HITANOARI BURUZKO AZTERKETA AMASA-VILLABONAN ETA IKASTAROA IBARRAN

Amasa-Villabonan hitanoaren egoeraren azterketa egin dute aurtun, Uxo Elustondo eta Ainara Ansa herritarrek. Galdetegi bidezko ikerketa kuantitatiboa osatu dute, eta maiatzaren 11n aurkeztu zituzten emaitzak, Subijana etxean. Ondorio garbia atera dute: azken 30 urteetan Amasa-Villabonan euskararen eza-gutza eta erabilera gorabehera gutxirekin mantendu bada ere, hitanoak indarra galdu du erregistro neutro edo zukaren mesedetan.

2021eko azaroan banatu dute galdetegia herritarren artean eta «uste baino erantzun hobea» jaso dutela nabarmendu zuten; guztira, 504 herritarrek erantzun diote galdetegiari. Herritarren %72k hitanoa bultzatzearen aldeko jarrera azaldu du; hau da, hamarretik seiri hika gehiago hitz egitea gustatuko litzaike. Azterketak ezagutzera eman duenez, base-rrian bizi edo familia baserri mundukoa duten herritarrek erabiltzen dute gehien hitanoa. Hortaz, gehiago dira egunerokoan hika entzuten duten amasarrak (%16,3), billabonatarak (%6,3) baino.

Bestalde, maiatzean zehar, hitanoa praktikatzeko ikastaroa antolatu dute Ibarra, Hauspoa Kultur Elkar- teak eta herriko Euskara Batzordeak eragile gehiagoren laguntzarekin. Hilabeteko lehen astean hasi ziren eta ordu eta erdiko lau saio egin dituzte. «Harrera ona izan du, uste genuena baino handiagoa», adierazi du Lierni Arozena Euskara Batzordeko kideak.



22. Korrika, 2022an

2021ean zen ospatzekoa 22. Korrika, baina osasun egoerak baldintzatuta, 2022ra atzeratu behar izan du AEK-k: martxoaren 31tik apirilaren 10era ospatuko da. Bada, martxoaren 28an, Korrika amaituko litzakeen egun berean, ekitaldiak egin dituzte Euskal Herriko 80 herritan, *Bultza euskaltegiak! Bultza euskara!* dinamikaren barruan. AEK-k azpimarratu du 22. Korrika «inoiz baino beharrezkoagoa» izango dela.

Kike Amonarriz eta Asun Garikano, urgazle berriak

Euskaltzaindiak azaroaren amaieran onartu eta kaleratu ditu euskaltzain urgazle eta ohorezko berrien zerrendak, Iruñeko udaletxean egin duten osoko bilkuran. Hainbat izen ospetsu daude zerrendan, eta tartean dira Kike Amonarriz hizkuntzalari eta Asun Garikano itzultzaile tolosarrak. Urgazleen kasuan ez dira Euskal Herri osoko pertsonak izendatu, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Bizkaikoak soilik baizik, baita Euskal Herritik kanpoko batzuk ere; ohorezko berrien kasuan, berriz, beste lurraldeetakoak ere izendatu dituzte. Gizonezkoak 29 dira; emakumezkoak, aldiz, 16. Tartean dira, besteak beste, Carlos Garaikoetxea lehendakari ohia, Aizpea Goenaga aktorea, eta Itxaro Borda, Ramon Saizarbitoria eta Anjel Lertxundi idazleak.

Bikain ziurtagiria Amezketako Udalarentzat

Amezketako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren goi maila egiaztatu du maiatzean zehar burututako ebaluazio prozesu baten ondoren. Enpresa nahiz erakunde batean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen duen ziurtagiria da. Apirilean eta maiatzean zehar, ziurtagiria lortzeko aurrera eramanean den prozesuaren bitartez euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa neurtu dituzte Amezketako Udalean, eta horretarako hainbat txosten osatu dituzte eta kanpo-ebaluazio bat ere egin dute. Horrekin guztiarekin, Eusko Jaurlaritzak aitortu egin nahi izan dio Amezketako Udalari maila hori lortzeko egin duen lana, eta udalak euskararen erabilera areagotzeko bidean aurrera jarrai dezan bultzatu nahi du.



GEHIAGO ETA OZENAGO

Kaleak hartu dituzte berriro ere eskualdeko emakume feministek urte honetan; izan aldarrikatzeko, salatze edota ospatzeko, geroz eta gehiago direla erakutsi dute eta geroz eta indartsuagoa dela mugimendua; horren adierazle dira, baita ere, sortu berri diren bi taldeak.

Beste urte batez, mugimendu feminista geroz eta indartsuagoa dela agerian geratu da eskualdean. Aurten, gainera, bost urtez behin mundu osoa zeharkatzen duen Emakumeen Mundu Martxa pasa da urtea hasi eta berehala eskualdetik, eta harrera beroa egin zaio hainbat herritan. Zubiek pertsona migratzaileentzat duten esanahia irudikatu dute: «Inoiz jendea konektatzeko baliagarriak izan ziren zubiak harresi bilakatu dira askorentzat, ez dute pertsonen joan-etorria ahalbidetzen; gun horietan pertsonak diskriminatu, zapaldu, baztertu eta hil ere egiten dituzte».

Mugimendu feministak mugak hausteko deia egin zuen eta salatu dute transnazionalak direla sistema

arrazista, kapitalista eta heteropatriarkala sostengatzeko tresna. Ikuspegi hori lantzeko dosierra prestatu du Emakumeen Mundu Martxak. Eta tokian tokiko talde feministek aztergai izan dute txostena urte honetan zehar.

Egun batzuk geroago iritsi zen martxoaren 8a. Ez nahi bezala, pandemiagatik, baina mobilizazio jendetsuak egin zituzten hala ere eskualdeko herrietan, *Dena aldatu, sistema arrakalatu* lelopean. Sistema kapitalista, heteropatriarkala eta arrazista arrakalatzeko deia egin dute aurten: «Geldirik nahi gaituzten arren, antolatuta segitzen dugu eta kaleak gure aldarri feministez betetzeko determinazioz».

Ekainean, ekimen berri bat abiatu zuten Altzoko



Martxoaren 8an Tolosan egindako manifestazioa. **JOSU ARTUTXA**

eragile ezberdinek: Tolosaldeko Irakurketa Feminista Taldeen I. Topaketa. Irakurle taldeei eta oro har irakur-zale feministei egin zieten deia topaketarako. Goizean, Kattalin Minerrek dinamizatutako saio batean hartu zuten parte bertaratu zirenek, eta arratsaldean, bertso saio literarioaz gozatu zuten Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Ane Labaka bertsolari eta idazleekin.

Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean ere kalean izan dira eskualdeko feministak. Matxismoak, arrazakeriak eta klasismoak sistema kapitalistan «korapilo bat ehundu» dutela, eta soka bakarrari tiraka, korapilo hori askatzea «ezinezkoa» dela adierazi zuten Tolosako Asanblada Feministako kideek: «Guztiak etetea da beharrezkoa. Matxismoa ez da desagertuko, jendarte honek bere izate eta aldaera guztiak gaitzesten di-tuen akordio sozial bat adosten ez duen arte. Eta, horretarako exijitzen dugu, eragile sozial, politiko eta instituzional bakoitzak ildo horretan lan egitea. Era-kunde konprometituak behar ditugu, eta ez morez mozorroturiko adierazpen instituzional, elkarretara-

tze eta argazkiak: nazkatuta gaude promesa fal-tsuez!».

«Minduta, nazkatuta eta amorrutaz iritsi gara aurten-go azaroaren 25era ere: izugarria izan da etxean zein kalean jasan behar izan dugun biolentzia-maila eta, izugarria, era berean, LGTBQ+ kolektiboaren kontra-ko eraso, gorroto-diskurtso eta baztertzea. Horregatik, aurten, zuzen-zuzenean gure gorputzaren aurka eraso egiten duen biolentzia matxistari jarri nahi izan diogu fokua», esan zuten. Ekitaldietan gogoan izan zituzten 2003az geroztik Euskal Herrian erail dituz-ten 112 emakume eta 11 adin-txikikoak. Eta horrez gain, urte honetan erail dituzten emakumeen alde ere kontzentrazioak egin dituzte urte guztian zehar es-kualdeko feministek.

Eraso matxistek etenik ez

Urte honetan eskualdean izan diren eraso matxista oro gaitzetsi dituzte eskualdeko asanblada feminis-tek; eta salaketaren berri izan bezain pronto kalera atera dira herritarrak, erasorik onartuko ez dutela ozen esateko.

Urtea hastearekin batera eman zuen lehenengo abisua Zizurkilgo Udalak. Herrian gertatutako eraso matxista baten berri izan zutela esan zuten. Eta bigar-ren eraso bat ere salatu dute Zizurkilen urte honetan: gizonezko batek emakumezko bati eraso egin zion apirilean. Zizurkilgo Udalak, beste behin, indarkeria matxistarik gabeko herri baten aldeko konpromisoa azaldu du eta jakinarazi du norabide horretan lanean jarraituko duela: «Konpromiso irmoa dugu herrian in-darkeria matxistaren aurkako protokolo orokorra sor-tzeko».

Aiztondoko Mugimendu Feministak eman zuen beste eraso matxista baten berri martxoan. Aizton-don gizon batek lau emakume eraso zituela esan zuen, eta emakume hauei elkartasun eta babes osoa helarazteko sinadura bilketa bat jarri zuten abian.

Ekaina hasieran, Tolosako skate parkean izandako



eraso matxista baten berri ere eman zuen udalak eta erasoak «irmoki» salatu zuen.

Erasoek etenik ez, eta abuztuan jakinarazi zuen Amezketa Udalak eraso matxista bat izan zela herrian. Emakume batek eta bere haurrak kolpeak jaso zituztela salatu zuen. Ondorengo egunetan elkarretaratzea egin zuten eta argi esan zuten horrelako jarrekin ez daukatela lekuri ez Amezketan, ezta beste inon ere.

Erasoen aurkako lanketak

Eraso matxisten aurkako lanketak egin dituzte, besteak beste, Anoetan eta Amasa-Villabonan. Saiaz mankomunitatea ere aritu da lan horretan. Anoetako kasuan, *Adi eta so!* behatokia sortu dute, 2018tik hasita zeuden lanketaren bidez. Emakumeek jasaten duten indarkeriari aurre egiteko koordinazioa du helburu.

Amasa-Villabonako Udalak Lurgatz eta Akain talde feministekin elkarlanean kanpaina eta ekintza ezberdinak egin ditu, matxismoak herrian lekuri ez duela aldarrikatzeko. Lau euskarritan gauzatu dute kanpaina: etxez etxe banatu den gida praktikoa bat, establezimenduetan jarri diren itsasgarriak, herriko bi sarrera

nagusietan jarri diren seinaleak eta herriko hainbat gunetan ezarri dituzten pankartak.

Eta Saiaz mankomunitatea ere ez da geldirik egon. Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa lantzen aritu da, fase ezberdinak aurrera eramanez. Uda aurretik egin zuten lehen fasea, eta ondorenean etorri da bigarrena, herritarren parte hartze aktiboarekin.

Eta lanketen bueltan, Irurako emakumeek historian egin duten ekarpena ikertzeko beka atera du udalak, eta Amaia Altunak eta Nerea Maizek irabazi dute. Lan horrekin, Irurako emakumeek orain arte arlo publikoan eta pribatuan egin duten ekarpena ikertu dute.

Geroz eta gehiago

Eskualdean feminismoa geroz eta gehiago saretzen ari da. Horren seinale da, bi talde feminista sortu izana: Irura Moretuz eta Aiztondoko Neska Gazteak. «Emakumeen ikusgaitasuna eta ahalduzko bultzatzeko eta indarkeria matxistaren aurka indarrak bartzeko» sortu dute, besteak beste Irurako taldea, eta Aiztondon, berriz, neska gazte eta feministak bilduko dituen taldea osatu nahi izan dute, «elkar zainduz, gozatzeko».



**MUSIKA
FAKTORIA**

AMESTU, SORTU ETA AIRERATU MUSIKA MUNDUAN!

Alokatu zure entsegu lekua
Iruran, Tolosatik pauso batera.

Behar duzun guztia topatuko
duzu gure online denda eta
denda fisikoan.

Ibaiondo industria-gunea 6, Irura
info@musikafaktoria.eus
943 504480

BURUJABETZA BIZITZA DUINERAKO

Aldaketa bidean gara



LAB

www.lab.eus

Guretzako gunea, jatorri anitzeko emakumeen gune

Alegian, Anoetan, Villabonan, Iruran eta Zizurkilen sortu dituzte taldeak; urritik hona hainbat saio egin dituzte hilabeteen behin

Elkarrengandik ikastea helburu, jatorri anitzeko emakumeak biltzen diren guneak sortu dituzte, Alegian, Anoetan, Villabonan, Iruran eta Zizurkilen. Bizi esperientziak partekatzea, kezkatzen dituzten gaiei buruz hitz egitea edota jakintzak partekatzea dira, besteak beste, herriz herri egiten dituzten saioetako helburu nagusiak.

Jatorri askotako emakumeak biltzen dira, elkarren artean ezagutu asmoz. Zalantzak, kezkak, ikuspuntuak eta esperientziak partekatzeaz gain, elkar laguntzen dute, pelikulak ikusten dituzte, tea hartzen dute edota txangoren bat edo beste egiten dute. Saio bakoitzean gai bat edo gehiago finkatzen dituzte, adibidez, emakumeen eskubideak, zaintza lanak, jatorrizko herriko bizimodua, herrian integra-



zioa nolakoa den, baliabide sozialen ezagutza eta beste hainbat kontu. Hilabeteen behin elkartzen dira, herriz herri.

Herritar guztiak euskarara gerturatzeko egitasmoa

Auzoko proiektuak ez du etenik Ibarran; 2016tik dago martxan eta euskaratik urrun bizi direnak hizkuntzara gerturatzea du helburu

Beste urte batez, Auzoko egitasmoa martxan da Ibarran, Euskaltzaleon Topagunearen eskutik. Euskaratik urrun bizi den orori harrera hizkuntzatik egitea eta elkar ezagutzeko espazioak sortzea da proiektuaren funtsa.

Aurreko ikasturtean, ekainera bitartekoan, bi talde osatu zituzten. Izaskun Urrestarazu da Auzoko

proiektuaren dinamizatzailea: «Oso ikasturte positiboa eta emankorra izan da».

Urrian berriro ekin diote ikasturte berriari. «Gai-nontzeko hizkuntzak aitortuz aurrera begira gabil-tza euskararen ahalduntzean. Elkarbizitza orekatu eta osasuntsua sustatu eta bizikidetzarako espazio-ei ateak zabaltzea da helburua», dio Urrestarazuk.

Aduna, etorkizunari begira



Adunako Udala
Herriko plaza, 1. Aduna
943 692571
udala@aduna.eus



IRIARTE
JATETXEA

Pedro Maria Otaño plaza, 1 ZIZURKIL • 943 692 537

ENERGIA BERDEA SORTUZ

Orexak 2019an hasitako proiektuari jarraipena eman dio eta hirugarren faseko eguzki plakak jarri ditu; Larraulen 90 plaka fotovoltaiko jarri dituzte eta Berrobi ere batu da ekimenera

Eskualdean Orexa izan zen autokontsumo-rako energia berdea sortzen hasi zen lehen herria, eta hirugarren fasea amaitu dute. Aurten, Gipuzkoako Foru Aldundia-ren proiektuari jarraipena emanez Larraulen martxan jarri dute, eta Berrobik bide bera hartuko du.

Orexa Bizirik proiektuaren barruan azken bi urteetan energiaren inguruko lanketa egin dute. 2019 urte bukaeran herriko ostatuaren teilatuan jarri zituzten lehenengo eguzki plakak, 50 guztira. Iaz 100 plaka jarri zituzten pilotalekuko teilatuan, eta aurten Oihan Txiki kooperatibako teilatuan jarri dituzte azkeneko 80 plakak. Orotara, 130.000 euroko inbertsioa egin dute azpiegitura sortzen, eta laguntza publikoa jaso dute. Autokontsumo komunitarioan parte hartzeko herritarrei eskatu dieten baldintza bakarra euren etxebizitzetako teilatuak uztea izan da azpiegiturak bertan jartzeko.

Larraul Gipuzkoako lehen landa eremuko energia komunitatea da, Tokiko Energia Komunitatearen proiektuari esker. Sustatu duten eredu deskarbonizazioaren kontzeptuan oinarritzen da. Zero kilometroko eredu berrian, instalazioak kontsumitzailearen 500 metroko erradioan daude. Honela, kontsumitzailea ahalduntzea lortuko dute, energia berriztagarriak ekoitzi, eskuratu, kontsumitu eta biltegitratzean herritarren rol aktiboa sustatuz. 90 plaka fotovoltai-ko jarri dituzte frontoiaren estalkian. 30 kw-eko eguzki energia sortuko da eta Larraulgo 50 etxetan energia berdea autokontsumo erregimenean hornitzeko moduan dira.



Berrobin ere energia berriztagarriak eta autokontsumoa sustatzera bideratutako tokiko energia komunitatea aurkeztu dute. San Andres ikastetxe publikoaren eraikina utziko du udalak bertan eguzki plakak jartzeko eta han sortutako elektrizitatea herriko familien artean banatuko du. Eskolako teilatuan 100 eguzki plaka jarriko dituzte eta bertan sortutako energiarekin, 70 etxebizitza hornituko dituzte.

Energiaren bulego birtuala

Tolosaldeko Energia Estrategiaren barruan, kultura energetiko berri bat sortu asmoz, lanean jarraitzen du Tolosaldea Garatzen garapen agentziak. Horregatik, eskualdeko udalekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuarekin elkarlanean, energiari buruzko informazioa eman, eraldaketarako sentsibilizatu eta formazioa sustatzeko, Tolosaldeko Energia Bulegoa jarri du martxan. Herritarrei energia alorreko arreta pertsonalizatua emateko, bulego birtuala jarri dute martxan; argibideak emateaz gain, doako *online* aholkularitza eskaintzen du.



Auzolangin(l)tza

Auzolanean jartzen du azpimarra Tolomendik sustatutako *Auzolangin(l)tza: XXI. mendeko Gipuzkoaren eraikuntzan auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza?* proiektuak. Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearen arabera, helburua Tolosaldean auzolaneko «esperientzia berritua» esperimentatzea da. Horretarako, auzolaneko kulturaren eta esperientzien gaineko lanketa egiten ari dira.

Lurrarekiko errespetua ardatz, Lurtaro elkarteak

Aro berri bati ekin diote Tolosaldean, elikadura osasuntsua, ekoizpen eredu duinak eta lantzen den lurrarekiko errespetua ardatz izango dituen: Lurtaro. Izen hori hartu du elikadura burujabetza bultzatzeko lanean ari den elkarteak. Askotariko pertsonak osatu dute eta proposamen hori gizarteratzen ari dira.

Ibai eta erreken garbiketak, herri ezberdinetan

Tolosa, Amezketa, Ibarra, Amasa-Villabona, Alegia eta Anoetan ibaia eta errekek garbitzen ahalegin handia egin da, eta hondakin mordoa atera dute. Azken lau herri horietan Urzain taldea aritu da.

‘Berastegi, herri kuttuna’ marka sortuta lanean

Berastegi, herri kuttuna marka sortu ondotik, hiru lan lerrotan sakontzen ari da Berastegiko Udala: artzaintza eta gaztaren kulturaren, bertako produktuetan eta herriko ondarearen balioan. Udalak azken urteetako parte hartze saioetako hainbat hausnarketetan sakondu, eta ideia horietatik tiraka praktika eta aplikaziorako dinamika berriak sortu nahi ditu. Ekintza ezberdinen bidez eta herritarren parte hartzearekin, «orainean oinarritutako etorkizuna» prestatu nahi du udal gobernuak. Parte hartze hori, hiru lerro horietan eramango dute aurrera. Lanketa honen abiapuntua 2019an hasi zen, komunikazio estrategia bat martxan jarri zutenean. Herri marka sortu zuten: *Berastegi, herri kuttuna*. Lelo hau ere herritarren parte hartzearen bidez eraiki da.



OINHERRI ARI DA SAREA OSATZEN

Herri hezitzaileen sarean sartu dira aurten Tolosaldeko hainbat herri; tokiko instituzio publiko, hezkuntza eragile eta herrigintzaren artean elkarlana bultzatu eta prozesuak dinamizatzen ditu Oinherri elkarteak

Herri hezitzaileen filosofia Euskal Herriratzeko asmoz Oinherri egitasmoan elkar-tu dira hezkuntza, aisia eta kultura arloko hamasei eragile. Pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea dute helburu, eta horretarako, herri hezitzailearen filosofia hau barneratzen hasiak diren herriek, euren praktika onak eta esperientzia eredugarriak beste herriekin partzeko, sarea sortu dute. Gaur egun 35 herrik osatzen dute. Tartean dira eskualdeko Asteasu, Altzo, Zizurkil eta Amasa-Villabona eta sareko kide izateko bidean dira, besteak beste, Anoeta eta Ibarra.

Zizurkilgo herriak, adibidez, maiatzean onartu zuen hitzarmena sinatzea Oinherri egitasmoarekin.

Iker Urruzola alkateak nabarmendu zuenez, Herribizigune elkartearen bitartez jakin zuten Oinherri egitasmoaren berri eta filosofiarekin bat zetozela ikusita erabaki zuten sarearekin bat egitea: «Uste dut sinbiosi ederra sortu dugula, herri hezitzailearen filosofiarekin eta lan egiteko moduarekin erabat egiten dugu bat».

Amasa-Villabona eremu hezitzaile moduan gartzatzen hasteko eta elkarlan horizontalak eraikitzeko, bertako udala Oinherrirekin elkarlana bideratzen hasi da aurten. Azaroa hasieran herriko ikastetxe, hezkuntza ez formaleko eragile eta herrigintzako elkarteekin batera bilkura egin zuten, herria bera balioen eremu hezitzaile moduan sustatzen hasteko.

2021ean, eta sareko kide diren herrien beharrak aztertutik ondoren, lau lan ildo identifikatu dituzte Oinherri. Eskola Kirola egitasmoan, nerabeen kultura eta herri espazioak haur eta nerabeen parte hartzearen bitartez nola eraldatu aztertutik dute, adibidez. Uztailen *Herri bat hezkuntzatik eraikitzen* jardunaldiak antolatu zituzten Errenterian eta bertan parte hartutik sareko kide diren eskualdeko herriek ere. Hezkuntzaren ardura konpartitua izanik, feminismotik, euskalgintzatik, aisialdi hezitzailetik eta herrigintzatik egin daitezkeen, eta jada egiten ari diren ekarpenen inguruan hausnartzeko aukera izan zuten jardunaldietan. Maite Azpiazu Oinherriko koordinatzailearen ustez, kolektiboaren garrantzia agerian geratu zen bertan: «Herri honentzat hezkuntza estrategia bat eraiki nahi badugu elkarrekin izan beharko du, edo bestela ez da herri estrategia izango. Desberdinen arteko batuketa moduan soilik kudea daitekeelako aniztasuna, elkarbizikidetasunean oinarritzen den herri hezitzaile baten baitan».

Haurrak erdigunean

Herriak espazio hezitzaileak direnaren ustea dute Oinherri bat egiten duten eragileek, eta honenbestez lan egiten dute, «herriek horren kontzientzia har dezaten, hezkuntza proiektu integral bat landu eta denen artean adosturiko balioak sustatuko dituen herri bat lortu dezaten». Asteasun, esate baterako, lanketa interesgarria egin dute azkeneko urtean eta herri hezitzailearen norabidean urratsak eman dituzte 2021ean.

Euskal Herriko testuinguruan, modu kontzientean, herri bat hezitzailea dela esateko, zazpi giltzarri edo gako zehazten ditu Oinherri egitasmoak. Jendarteko kide aktibo gisa ulertzen dituzte haurrak. «Helduon zeregin bakarra umeentzat fisikoki, emozionalki eta afektiboki seguruak izango diren espazioak sortzea eta ahalik eta esperientzia anitzienak eskaintzea da, gero, espazio horren barruan, haurrek berezkoak dituzten gaitasunak garatu ditzaten», esan dute egitasmoko arduradunek. Herriak ere izan daitezke hezkuntzarako espazio seguruak eta norabide horretan lanean ari dira eskualdeko sei herri.

Herrigunea berpizteko saioa



erribizigune elkarrekin lanean jarraitu du 2021ean Zizurkilgo Herrigunean. 2019an erosi zuen udalak bertan dagoen Plaza Etxeberri eraikina eta beheko solairuan eskaintzen duen osta-

tut-jatetxe zerbitzuaz gain, gainerako espazioei zein erabilera eman erabakitzeke parte hartze prozesua dinamizatu du elkarrekin azkeneko bi urtetan.

Ekarpen guztiak bildu eta urte amaieran aurkeztu duten proposamena lantzeko, tokiko elikagaien eta elikagai agroekologikoen aholkularitzako nahiz heziketarako zerbitzuak garatzen dituzten Lakari eta Talaios kooperatibetako kideen eskutik formazioa jaso zuten Herribizigune elkarrekin kideek urte hasieran. Besteak beste, lanaren burujabetzaz, kooperatibismoaz, tokian tokiko garapen eraldatzaileaz eta marketin komunitarioaz aritu ziren saio horietan. Martxoan hasieran biribildu zuten trebakuntza aldia.

Abendu hasieran batzar ireki batean aurkeztu zituen Herribizigune elkarrekin prozesuaren ondorioak eta hartutako konpromisoen berri eman zien bertaratutako herritarrei.

Elkarguneak sortzeko ahaleginean jarraitu du Herribizigunek 2021ean. Francesco Tonucci pedagogo italiarraren *Haurren hiria* proposamenean oinarrituta, Herrigunean haur parke sozial bat eraiki nahi dute, *Haurren basoa* deitu diotena. Bide hirukoitza abiatu dute, parte hartzea sustatu eta haurrak erdigunean jartzeko: San Millan eskola, gurasoak eta udala ari dira parkea irudikatzen. Oinherri egitasmokoaren aholkularitza jaso dute bidean.

Pertsonen arteko elkarlana eta auzokidetasun sentimendua sustatzeko helburuz ekimen gehiago ere antolatu ditu Herribizigunek. Martxoaren 28an, *Udaberri Eguna* ospatu zuten, euskal egutegiaren araberrako urte berriari ongi etorria emateko.



‘Irribarrez’ hartu dute Kilometroak Ibarran

Ibarrako Uzturpe ikastolak antolatuko du 2022ko Kilometroak jaia. *Irribarra* izango da ekimenaren goiburua. Urrian iritsi zen Goierritik lekukoa Ibarrara eta bertan egongo da 2022ko urriaren 2ra arte. Orduan egingo dute festa nagusia Ibarran, eta horrekin batera, urtean zehar beste hainbat ekimen gauzatuko dituzte Gipuzkoan, beste ikastolekin elkarlanean.

Bien bitartean, Kilometroetako denda, Euskal Herria kalean jarri zuten urrian. Bertan izango dira eskuragai Kilometroetako arropa eta banderolak. Banderolak erosi eta etxeetako balkoietan jartzeko gonbidapena egin zuten aurkezpen ekitaldian, «Irribarraz jantzi beharko ditugulako Ibarrako kaleak».

Josu Ozaita herritarra arituko da urte osoan zehar Kilometroak jaia koordinatzen. Ikastolako arduradunek esan duteenez, 150 herritarrek eman dute izena batzorde ezberdinetan urte osoa iraungo duen ekimena prestatzeko. Aurkezpen ekitaldia, aurtengo azaroan egin zuten Belabieta kiroldegian.



‘AIZTONDOKO ZIRTOTSA’ LANAREN ONDORIOAK EMAN DITUZTE

Harituz bertsozaleen elkar-guneko kideek sinatutako lanak eskuratu zuen iaz Pello Mari Otaño beka. *Aiztondoren zirtotsa. Aiztondoko zirto tradizioa eta aplikazio didaktikoa* proposamena gorpuzteko urtebeteko epea izan dute eta ondorioak aurkeztu zituzten uztailan. Zirtoaren lanketak Adarra jotzeko moduak euskaraz lantzeko aukera ematen du Harituzeko kideen ustez, «sormena eta irudimena gure hizkuntzarekin lotzeaz batera».

OTAÑORI BURUZKO FILMA AUZOLANEAN EGITEKO SAIOA

Ombuaren itzala filmak Pello Mari Otaño bertsolariaren (1857-1910) bizitza jasoko du. Eguzki Art Zinema ekoiztetxearen egitasmoa da, eta auzolanean egin nahi dute filma. Bertsolari eta poetaren jaioterrian aurkeztu zuten proiektua, 2020ko urte bukaeran, eta ordutik Patxi Bisquert ekoizle eta aktorea herriz herri ari da egitasmoa aurkezten. Ekimenaren bultzatzaileek aurre-salmentan 30.000 sarrera saltzeko erronka jarri dute.





Bazurka
industrialdea,40
20260 Alegia
943 651 359
661 633 695
iareraikuntzak@gmail.com

TEILATUAK
FATXADAK
ERABERRITZEAK

VELUX®

Instalatzaile baimendua



EUSKARA
KULTURA
HERRIAREN GEROA

Tolosan aurhituko gara

elkar
fundazioa



KULTUR SORKUNTZAK EZ DU ETENIK IZAN

Kultur ekimenak martxan jartzen hasi dira 2021ean eta horrekin batera eskualdeko sortzaileen lanak ere plazaratzen hasi dira, urtebeteko etenaren ostean; musika, artea, dantza eta literaturan sortu dira hainbat lan.

Pandemiak baldintzatutako urtea izan da aurtengoa. Osasun egoerak ahalbidetu duen neurrian kultur ekitaldiak antolatzen hasi dira eskualdean. Ekainetik urrira bitartean ospatu zen Kultura Plazara jaialdia, Tolosako Udalak antolatuta. Arte eszeniko ezberdinei egin zitzaion lekua eta gune ezberdinetan eskaini ziren haur, gazte eta helduei begirako ekitaldiak. Denera 8.000 lagun inguru bildu zituen jaialdiak. Tolosan bertan, bestek ekimen batek ikusi du argia aurtengo lehen aldiz: Tolofolk jaialdiak. Apirilaren 7tik 11ra egin zuten.

Dantza

Dantzari dagokionez, urte emankorra izan da aurtengoa eskualdean. Kimua dantza kolektiboak bere lehen ikuskizuna estreinatu zuen ekainean: *genEroa*. Kale ikuskizuna da eta genero ikuspegiaren gaiak zizpiztintzen dituen alderdi ezberdinen inguruko hausnarketa proposatzen du. Hainbat koreografia interpretatzen dituzte eta dantzekin batera, musikek, zuzeneko errezitaldiek, bertsoek, *off*-eko ahotsek eta hainbat baliabide materialek osatzen dute kale ikuskizuna. Kolektiboko sei dantzarik eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariak hartzen dute parte emanaldian.

Ez da aurtengo estreinatu den dantza emanaldi bakarra izan. Uztailaren 2an Hondarribian eman zuten lehen aldiz *Gazte* izeneko ikuskizuna. Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean eta Eneko Gilen koreografiekin ondutako lana da eta Villabonako Oinkari dantza taldeko hamabi dantzarik hartu dute parte proiektuan.

Musika

Eskualdeko gazteek ere beren agerpena egin dute musikaren panoraman Xabi Zubeldiak, Txomin Urdanpilletak eta Iñaki Mujikak Nera izeneko proiektua aurkeztu zuten udaberrian eta euren lehen lana plazaratu: *Itsasoari begira*. Nerako kide den Iñaki Mujika asteasuarrak Markel Galarraga eta Ivan Roperok zizurkildarrekin eta Jokin Iraola tolosarrarekin osatu du Meliora taldea. Pello Errota protagonistatzat hartuta singlea eta bideoklipa kaleratu zuten irailean.

Gazteak dira baita ere Distopia elektrotzarangako kideak, Tolosaldeko zazpi herrietako hamaika musikarik osatzen dute. 17 eta 22 urte artekoak dira denak. Beste gazte tolosar bat dabil Nikotina proiektuaren gidari gisa, Jon Tolosa tolosar gaztea hain zuzen. *Nirvana* diskoa kaleratu zuen udazkenean.



Euskal Herriko lehen pamela, eskualdera

Emakume bertsolarien ahalduntzean sakondu, harremanak sendotu eta elkarrekin kantatzeko gunea izan da aurten lehen aldiz antolatu duten Señora sariketa. Onintza Enbeitarekin buruz burukoa jokatu ondoren, Amaia Agirre billabonatarrak irabazi zuen sariketa. Pamela eskualdera ekarri zuen.

Ekainean, Jon Mendiluze irurarrak Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean parte hartu zuen bigarren aldiz. Uztailean, berriz, Harituz Tolosaldeko bertsozaleen elkar-guneak *Aiztondoko zirtotsa* ikerlanaren ondorioak aurkeztu zituen.

Uztaila amaieran jakitera eman zuten Mintzola patronatuko kideek fundazioa desegin eta Ahozko Lantegiaren jarraipena Euskaltzaindiaren esku uzteko erabakia.

Verde Prato izena jarri dio, bestalde, Ana Arsuaga Aranbarri artistak bere bakarkako musika proiektuari eta *Kondaira eder hura* diskoa kaleratu du aurten. Aurten sortu den beste musika taldea da Mirua. Maitane Iruiñ eta Malentxo eta Mattin Zeberio tolosarrek sortu dute eta Gaztea irratiko Maketa Lehiaketako *Harrobia* saria irabazi zuen azaroan. Elkarlanean aritu da, baita ere, Villabonako Habi taldea Etxekalte talde bizkaitarrarekin. Bi kantuz osatutako *Arima* lana kale-ratu zuten urte hasieran.

Kepa Junkerarekin Sorginak taldean ibilitako beste bost kiderekin batera Neomak taldea sortu dute Maria Lasa zizurkildarrak eta Garazi Otaegi asteasuarrak. Trikiti munduarekin jarraituz, Maixa Lizarribarrek parte hartzen duen Amak taldeak disko berria atera du aurten, baita Xabi Malbadi albizturtarrak ere, *Zero* ize-nekoa plazaratu du.

Artea

Urtero bezala, Sormenaren Kabia bekarekin egonaldi artistikoa egin dute Alkizan Ione Larragok eta Joseba Agirrezabalak. *Geuretik Sortuak* bekari esker, Villabonan hiru astetako egonaldia egin zuen Maitane Perez Argote iruindarrak. Eta beste artista batek, Julen Iz-

tueta anoetarrak, aurten, Galerie 21 arte galeriaren eskutik, *Ispilu hutsak* bilduma jarri zuten ikusgai Hanturgoko kaleetan.

Argitalpenak

Juan Kruz Igerabide.

Doneaneko alaba.

Maixa Zugasti.

Hostoen hezurdura unatua.

Oihana Iguaran. *Hormak.*

Koldo Alijostes. *Bizitzak.*

Joxemari Iturralde. *Antxon*

Elosegui, desgranando una vida.

Oihana Iguaran eta

Maria Altuna.

Plazida, oihartzunaren plaza.

Iraitz eta Izaro Lizarraga.

Pli, Pla!

Koldo Rabadan. *Bidean.*

Maria Morales.

La luz de la tormenta.

Iñaki Zubeldia.

Lehoiaren atzaparretan galduta.

Karlos Linazasoro.

Esaten dugun argia.

Zazpi preso gerturatu dituzte

Urtean zehar, hainbat ekimen eta dinamika ibiltari egin ditu Sarek herrietako plaza, mendi tontor eta kaleetan. Guztietan ere, presoan gerturatzeak eskatu dituzte; hain justu, eskualdeko zazpi euskal preso gerturatu dituzte aurtien: **Manex Castro** El Duesora (170 km), **Iñigo Guridi** Leonera (350 km), **Juan Carlos Besance** Dueñasera (288 km), **Oskar Zelarain** Soriara (260 km), **Aitor Agirrebarrena** eta **Anabel Egues** (bigarren gradua emanda) Villabonara (Asturias, 385 km), eta **Andoni Goikoetxea** (bigarren gradua emanda) Martutenera.

Iraola, batzarkide; Asensio, idazkari nagusi

Unai Iraola alegiarrak Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide kargua hartu du, Jon Zuluetak utzitako hutsunea betez. Bestetik, **Jose Ignacio Asensio** tolosarra Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusi izendatu dute; ingurumen diputatuak Eneko Anduezen lekukoa hartu du. Azkenik, **Jokin Tolsa** Anoetako EH Bilduko zinegotziak kargua uztea erabaki du, «COVID19-aren hedapena geratzeko helburuarekin ezarritako arauak behin baino gehiagotan hautsi ditu», jakinarazi du alderdiak berak.

Desagerpenen eta torturen aurrean, oroimena

Maiatzaren 28an ospatu dute **Bernardo Bidaola Txirrita** lizartzarraren heriotzaren 45. urteurrena. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak **Jose Miguel Etxeberria Alvarez Naparra**ren desagerpenari buruz duen dokumentazio osoarekin ondutako txostena eman dio sendiari, gorpua bilatzeko lanetarako «akuilu» izan dadin; ikerketa «eragingarri bat» sustatzea du helburu. Iruindarra zen, baina urtero ekartzen dute gogora Lizartzako Igarolabekoa familiako base-rrian; 41 urte daramatza desagertuta. Halaber, 40 urte dira **Joxe Arregi Izagirre** zizurkildarra poliziak eragindako torturen ondorioz hil zela. «Egia itzale-tik ateratzeko» eskatu dute bera oroitzeko bere izena daraman plazan egin duten ekitaldian.

Julen Zelaraini, babesa

13/13 epaiketan auzipetutako **Julen Zelarain** billa-bonatarrari elkartasuna adierazteko, 15 minutuko eserialdi jendetsua, mahai-inguru bat eta 13 minutuko 13 ekimen lelopean egun osoko ekintzak egin dituzte Amasa-Villabonan. Espainiako Auzitegi Nazionean epaitu dute, beste zazpi lagunekin batera. Denentzat 77 urteko espetxe zigorra eskatzen zuen fiskaltzak, ETArekin lotura izan zutelakoan. Azkenean, Zelarainen akusazioa erretiratzea erabaki du Jose Perals fiskalak, baita AVT akusazio partikularrak ere.

GAL salatzeko eskaera

Joxi Zabala zenaren arrebak, **Pili Zabalak**, Espainiako presidente ohi Felipe Gonzalezek GALEkin izaniko lotura ikertzeko eskatu dio Gipuzkoako Fiskaltzari. GAL ikertuko duen plataforma independentea bultzatu nahi du Zabalak; ikerketa ekinbide bat hasteko, ea Felipe Gonzalezen aurkako salaketa bat jar daitekeen argitu dadin eskatu du.

Saharar herriari eta Palestinari, elkartasuna

Saharar herriaren askatasuna eskatzeko estatu mailan antolatu den martxarekin bat egitea erabaki dute eskualdeko herritarrek. Tolosaldea Sahararekin elkar-teak antolatutako martxak, eskualdeko zenbait herri zeharkatu ditu. Bestetik, manifestazio jendetsua egin dute Tolosan, Israelek Gazan egin-dako erasoak gaitzetsi eta **Palestinari** elkartasuna adierazteko.

Altxa, sinatu, erabaki, dantza

Erreferendum bidez erabakitzearen aldeko atxiki-mendu eta konpromiso pilaketa masiboa da **Hamaika Gara** egitasmoa. Erabakitze-eko eskubidea gauzatzearen aldeko jarrera nagusia ikustaraztea eta Euskal Herriko lurraldeetan urrats eraginkorrak egitea du helburu. Horrela, herritarrek elkartzeko asmoz, dantza kolektiboa egin dute Tolosan.

BERTAKOA BERTATIK



ANOETAKO
UDALA

BASERRI BIZIAK
DENDA BIZIAK
HIZKUNTZA BIZIAK
HERRI BIZIAK

2022an jarrai dezagun
bidea euskaraz egiten.



 **Teelmask®**

Urreta bailara, 10
20.495 Albiztur
943 69 11 17
info@teelmask.eu

Tolosako Bizikidetza

Foroak bere lana amaitu du

Tolosako Bizikidetza Foroak amaitutzat eman du bere ibilbidea pasa den azarotik; 2013an sortu zuten hamabi lagunek, «ideia ezberdineko tolosarren elkargune iraunkorra» bezala definiturik

Tolosako kultur etxean egin du bere azken ekitaldia Tolosako Bizikidetza Foroak, eta bertan, zortzi urte hauetan foroak berak egindako lana errepasatu dute.

Herri ekimenak sustatuta eratu zuten taldea ibilbide sozial eta politiko anitzeko hamabi herritarrek: Martin Agirrezabala, Jose Luis Aizpurua, Kike Amonarritz, Mattin Amundarain (2019an zendua), Joxe Agustin Arrieta, Pello Atxukarro, Garbiñe Biurrun, Sergio Ceberio, Antton Izagirre, Arantxa Izagirre, Onintza Lasa eta Xabier Maiza. Guztiak lagunak, pentsaera ezberdinekoak, baina bizikidetzaren aldeko ekarpenak egiteko prest azaldutakoak.

Foroa 2013an sortu bazen ere, handik urtebetera aurkeztu zen publikoki. Elkarri eta Lokarri taldeen ekimenez eratu zen; kolektibo horiek, gatazkari irtenbideak proposatzeko bildu ziren hainbat urtez. ETak bere jarduna utzi ondoren, aurrera egitea erabaki zuen Lokarrik. Orduan, Tolosako Bizikidetza Foroko partaideek erabat autonomia eta ahalik eta irekiena izango zen elkarte berri bat sortzea erabaki zuten. Geroztik, askotariko ideiak eta jarrerak zituzten tolosarren elkargune iraunkorra izan da; eztabaidarako, azterketarako edota pentsamendu trukaketarako.

Konfiantzazko giroa

Azken saioan, Garbiñe Biurrunek eta Kike Amonarritzek eman dute foroak egindakoaren berri. Taldeak bileren-lerro nagusi izan dituela zehaztu dute: «Batetik, bizikidetzaren inguruan barne hausnarketa eta eztabaida bultzatzea; bestetik, berriz, elkarbizitzaren in-



gurukoa, kanpora begirakoa». Horren erakusgarri, 2014tik 2017ra foroak sustatutako hamabost ekitaldi publikoak. Hala ere, azaldu dutenez, zortzi urte hauetan une konplexuak igarotzea ere egokitu zaie foroko kideei.

Webgunea eta azken testua

Kultur etxeko azken saioan, Tolosako Bizikidetza Foroak burututako lana modu kronologikoan eta grafikoan jasotzen duen webgune berria aurkeztu dute: *Bizikidetzaforoa*.tolosa.eus. Denbora-lerro bat ikus daiteke bertan; taldeak urtez urte antolatutako ekitaldiekin, prozesuaren kronikekin eta bizikidetzari lotutako zenbait mugarriekin.

Ekitaldiaren amaieran, denen artean adostutako *Kontakizun etikoa* izeneko itxiera testua irakurri zuten Arantxa Izagirrek eta Sergio Ceberio. «Tolosan sufritu izan diren askatasun faltak, jazarpenak, errespetu falta mingarriek eta urraketek, neurri batean, indarrean jarraitzen dute gaur egun ere», ohartarazi dute.



BURGOSKO PROZESUARI BURUZKO ERAKUSKETA TOLOSAKO ARANBURU JAUREGIAN

Burgosko Prozesuak 50. urteurrena bete eta gutxira, gertaera hari buruzko erakusketa jarri da martxoan eta apirilean, Aranburu Jauregian. Memoria berreskuratu eta bizikidetzaren inguruko elkarrizketa zabal ahalbidetzeko udalak antolatutako *Bizikidetza sustatzen* ekitaldi zikloaren barruan kokatu da erakusketa.

Frankismoari epaiketa egitasmoa eta garaiko 173 agiri eta testigantza bildu ditu esposizioak. Hiru bloketan banatu da erakusketa. Lehenengoan, testuinguru historikoa islatu da; bigarreanean, giza eskubideen urraketak eta frankismoak eragindako errepresioa azaldu dira; hirugarrenean, berriz, epaiketan gertatutakoa kontatu da.

'MAIXABEL' FILMAREN AURKEZPENA LEIDORREN, MAIXABEL LASA ETA AKTOREEKIN



Maixabel filma estreinatu da irailaren 24an Tolosan, emanaldiaren ondoren solasaldia eskainiz. Tolosako Bizikidetza Foroko dinamizatzaile Aitziber Blancok aurkeztu zuen filma eta emanaldiaren ondoren ohol-tzara gonbidatu zituen Maixabel Lasa eta filmean haren alabaren papera jokatzeko duen Maria Cerezuela eta atentatuan parte hartu zuen Luis Carrascoren egiten duen Urko Olazabal aktoreak.

Lasaren esanetan biolentziaren deslegitimazioa bultzatzen du *Maixabel* filmak eta bere senarraren hiltzaileekin izan zituen topaketen balioa ematen du ezagutzera. «Uste dut bigarren aukera merezi dutela», Lasaren baieztapenari txaloz erantzun zion Leidorren bildutako jendeak.

GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEN INGURUKO WEBGUNEA, VILLABONAN

Aranzadi zientzia elkarteak Amasa-Villabonako herri-tarrek jasandako giza eskubideen urraketen inguruan ikertzen ari dela eta webgune bat sortu dute: *Amasa-Villabona-Oroimena.eus*.

Agerraldia egin zuten Memoriaren Egunaren bezperan Beatriz Unzué alkateak, Patxi Agirre, Maria Luisa Arika eta Xabat Laborde zinegotziek eta Javi Buces Aranzadi elkarteak ikerlariak. Memoria eta Bizikidetza Batzordetik biktima guztien duintasunaren aldeko konpromisoa erakusten jarraitu nahi dutela esan dute, «biktima horiek egitarako, justiziarako eta erreparazioarako eskubidea merezi baitute».



Zizurkilen, datozen bi urteetan

Zizurkilgo Udalak hitzarmena sinatu du Aranzadirekin. Herrian izan diren giza eskubideen urraketa guztiak jaso eta sailkatuko ditu zientzia elkarteak datozen bi urteetan. «Giza eskubideen urraketa larrienak azalera aterra eta zauriak sendatzen hasteko», esan du alkateak.

200 ALDIZ ENTZUTEKO MODUKO IRRATSAIOA

(H)ari Naizela irratsaioak bertso saio berezia antolatu du 200 zenbaki borobilaren harira; 'Ataria Irratia'k urtea kolaboratzaile eta saio berriekin amaitu du, goizeko eta iluntzeetako ordutegietan



Bi mila eta hogeita bata urte borobila izan da (H)ari Naizelako lantalde osoarentzat. Imanol Artola *felixek* zuzentzen duen irratsaioa 200. saiora iritsi da aurtengoan. Lorpen hori ospatzeko irratsaio berezia egin dute otsailaren 26an, Amasa-Villabonako Gurea antzokian. Irrati formatuan egindako bertso saioa izan da. Gai jar-tzaile lanetan eta aldi berean (H)ari Naizela irratsaioa aurkezten *felix* aritu da. Bertsotan, Oihana Iguaran, Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

(H)ari naizela irratsaioa, ATARIA IRRATIAREN, Harituz Tolosaldeko bertsozaleen topagunearen eta Xenpe-lar dokumentazio zentroaren hitzarmen baten fruitua da eta bertso saio berezia ere elkarlan horretatik sortutako ekimena izan da.

Asteazkenero 20:00etan entzuten da bertsoen inguruko irratsaioa. Ordu horretan, astelehenetik osti-ralera, saio libreen txanda izaten da. 2021ean, iazko

saioek jarraipena izan dute. Horrez gain, berriak el-kartu dira ATARIA IRRATIRA. Iluntzeko tarte oparoa osa-tu dute guztiek: *Eleak eta beleak; Hauspo Artean; Zer Berri?; Musikasi; Mailu eta akuilu; Uzturre blues; Zien-tziaren talaia...*

‘Pasahitza’, kolaboratzaile berriekin

Irailean lanurte berria hasi zen ATARIA IRRATIAN. Kola-boratzailleen ekarpena ezinbestekoa izan da, eta ahots berriak elkartu dira azken lau hilabete hauetan. Maitane Ormazabal Larzabalek *Txukuntzen* izeneko atala ekarri du eskualdeko irratiara. Iñaki Zubeldia idazleak literaturaren historiaz hitz egiten digu. Aini-tze Salak sendabelarren inguruko jakintza erakutsi digu. Ander Leonek historia irakatsi digu. Tolomen-dik bere txokotik landa eremura eramán gaitu eta Ander Otañok ezkutuan ihes egiten diguten albiste-ak kontatu dizkigu.

ATARIA BERTSO JAIALDIA 2022

Urtarrilak 22,
larunbata, 18:00etan,
Tolosako Leidor
antzokian

Oihana Iguaran
Maialen Lujanbio
Ametz Arzallus
Andoni Egaña
Nerea Ibarzabal
Iker Zubeldia

Gai jartzailea:
Amaia Agirre

Antolatzaileak:

 **ataria**


HARITUZ


galtzaundi

Babeslea:


TOLOSA

‘Irura eskura’ aplikazioa, mugikorretarako

Irurako Udalak herritarrekin komunikazio «azkarra eta zuzena» ahalbidetzeko tresna izango da. ACV Multimedia enpresak garatu du.

I rurako Udalak, ACV Multimedia enpresaren laguntzaz, mugikorretarako aplikazio bat sortu du. Android eta IOS sistema duten gailuentzat egokitua da. Gorka Murua alkatearen arabera «komunikazio atala indartzeko sortu dute». Herritarren eta udalaren arteko komunikazio «azkarra eta zuzena» ahalbidetzeko sortu dute aplikazioa. «Bi norabideetako izatea nahi dugu, udalak bere ekimenen berri emango die herritarrei, eta lehenaz gain, herritarrek udalarekin harremanetan jartzeko duten aukera handitu eta erraztu egingo dugu». Udalarentzat «garrantzitsua» da herritarrekin hartu-emana edukitzea eta aplikazioa sortzea norabide horretan aurrera ematen den urrats bat da alkatearen hitzetan. Erabiltzaileek, besteak beste, albisteak, agen-



da, farmaziak, garraioak eta multimedia atalak izango dituzte eskura. *Idatzi udalari* atalari esker herritarrek udalari euren ekarpenak egiteko aukera dute.

Hiribus zerbitzurako autobus elektrikoa

Hiru ate ditu, 21 eserleku, horietatik lau mugikortasun urriko pertsonei eta gurpildun aulkiei zuzenduak, eta guztira 81 pertsonentzat du lekua

Tolosako Hiribus zerbitzua zero emisioko autobus elektrikoa eskaintzen ari da uztailaz geroztik. Ohiko ibilbidea egiten du, ordutegi eta tarifa berarekin. Autobus elektrikoaren aldeko apustua «Tolosa herri jasangarriago bilakatzeko helburuaren barruan kokatzen da, horregatik, estrategiko bezain garrantzitsua da», udalaren

esanetan. Autobus elektriko berria, ibilgailu modernoa da itxurari dagokionez, eta tranbia baten ezaugarri estetikoak ditu. Hiru ate ditu, 21 eserleku, horietatik lau mugikortasun urriko pertsonei eta gurpildun aulkiei zuzenduak, eta beste bi gune haurren kotxeentzat. Guztira, 81 pertsona garraiatzeko gaitasuna du.

Wikipediaren leihoa eskualdean, Tolosaldepedia

Herritar, eragile eta ikastetxeen ekarpenarekin atera da aurrera egitasmoa. Egindako lan guztiarekin, sortutako artikuluekin eta egileen izenekin liburu bat argitaratuko da, doan banatuko da.



Tolosako Udalak, Galtzaundi euskara elkartearen laguntzaz, Tolosaldepedia jarri du martxan 2021ean. Urte hasieran sustatutako ekimena martxa hartuz joan da urte guztian zehar. Eskualdeari buruzko ezagutza sakondu eta herritarrek elkarren arteko harremanak sustatu ditzaten sortu dute. Proiektu herritarra eta irekia da, elkarlanean eginga, herritarren ekarpenekin osatu eta zabaltzen ari direlako, eta urtea amaitu bitarte iraun duena. Orduan, egindako lan guztiekin, sortutako artikuluekin eta egileen izenekin liburu bat argitaratuko da, eta doan banatuko da, parte hartzen dutenen artean.

Proiektua garatzeko hainbat ekintzailez osatutako Talde Eragilea sortu dute. Aiora Mujika anoetarra da bertako dinamizatzailea, eta berak gidatzen ditu Wikipedian editatzen ikasteko eta Tolosaldepedia proiektuan idazteko tailerrak.

Tailer horiez gain, zenbait gaiei lotutako topaketak egin dira urtean zehar.

Berez, Tolosan sortu zen proiektua, baina eskualdeko izaera hartu du gerora. Hortaz, Tolosaldeko gainerako herrietako udalek edo elkarteek aukera izan dute lantegiak edo bestelako ekimenak antolatzeke. Hezkuntza komunitatea ere egitasmoan parte hartzen ari da, ikastetxeekin elkarlanean Txikipedia proiektua garatzen. Wikipediaren barruan dago integratuta, eta 8 eta 13 urte bitarteko haurrentzako entziklopedia da; Wikipediaren aldean, bisualagoa. Txikipedian editatzea ikastetxeko lanetako bat izan da ikasleentzat; horrela, hezkuntzaren ikuspegitik, ikaste-esanguratsua deitutakoa garatu da, ikasleek egindako lanek isla izan dezaten.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ere egitasmoarekin bat egin du. Tolosaldepedia eskualdean sustatzeaz gain talde eragilean parte hartze zuzena izan du.




22. urteurrena

Anoetako Gaztetxeak 22 urte bete ditu 2021. urtean eta urtemuga ospatzeko egitaraua osatu zuen Anoetako Gazte Asanbladak, *Pareta bota eta asmo berriak ate joko* lelopean. Urtemuga baliatuz eraikinaren barruko espazioak egokitu dituzte eta prozesu «luze eta emankor» baten emaitza da gaztetxe eraberritua.



Mobilizazio urtea

Pentsiodunen mugimenduak ez du etenik izan eta 2021ean elkarretaratzeak egiten jarraitu dute. Urte osoa eman dute ongizate sistema «indartsu bat» eskatzen bizitza «duina» izateko beharrezkoa delako. Iberdrolak Tolosan duen bulegora joan ziren mobilizazioetako batean, argindarraren prezioak izan duen igoera salatu asmoz.



Uholdeak eta luiziak

Oria ibaiak gain hartu zuen abendua hasieran Ikaztegietatik hasi eta Adunara bitartean. Alegian, Tolosan, Anoetan edota Villabonan gainezka egin zuen ibaiak. Beste hainbat puntutan ere gainezka egin zuen eta zenbait lekutan kalteak eragin zituen. Amezketa eta Alegia artean ere luiziak izan ziren, eta errepidea oztopatu zuten.



Kanpalekuetatik

COVID-19ak sortutako egoera dela eta, saharar errefuxiatuen Tinduf kanpalekuetan bisitarik jaso gabe egon dira abendura arte. Tolosaldea Sahararekin elkartek material bilketa erraldoia egin eta elkartasun bidaia antolatuta joan ziren duela aste gutxi kanpalekuetara. TOLOSALDEKO ATARIA bertan izan zen.

ZENBAKI BIRIBILAK

Aurten 50 urte bete dira Felix Ruiz de Arkaute hil zela, eta hamar urte Antxon Bandresen heriotzatik. Alurrek 25. urteurrena ospatu du urtebete beranduago, eta Amalur jardunaldiek 15 urte bete dituzte.

Felix Ruiz de Arkaute hil zela 50 urte dira aurten, eta Antxon Bandres herrikidea hil zela, berriz, 10 urte. Tolosan izan diren bi pertsona esanguratsuak gogoan izan dituzte abenduan egindako bi ekitalditan, bide batez omenaldi moduko bat eginez. Ruiz de Arkaute espeleologoa, topografoa, geologoa eta argazkilaria izan zen, eta sakonerako munduko errekorrak hautsi zituzten hainbat esplorazioetan hartu zuen parte.

Felix Ruiz de Arkaute van der Stucken-en biografia biltzen duen liburua argitaratu dute Tolosako Udalen laguntzarekin, eta bere garrantzia aipatu dute udaletik: «Aspaldidanik landua dago, baina oso gutxi ezagutzen da. Honek ekintza berezi batzuk azalera-tuko ditu, eta askorentzako oso-oso berria izango da, eta beste askorentzat balioan jarriko du beraiek egiten duten lana, eta jarraitza animatuko ditu».

Josu Iztuetak, Antxon Bandres Bidaariaren Txokoren izenean, horrela gogoratu du Bandres bera: «Aranzadiko kidea; Alpino, Kasino eta Handia elkar-tekoa; inauterizalea; txikiteroa; Urkizuko auzokidea; idazlea; erradiologoa,... Leku askotako saltsa zen».

Alurr taldeak, ospakizuna urtebete beranduago
Ibarrako Alurr dantza taldeak 2020an bete zituen 25 urte, eta iaz zuten egitekoa merezitako ospakizuna ere. Pandemiak bete-bete harrapatu zituen ordea, eta ordutik nahikoa lan egin dute dantzako eskolak irekita mantentzen. Segurtasun neurriak hartuta, urte hasierako prestatu zuten emanaldi berezia, bai-na azkenean ezin izan zuten egin. Hainbeste lan, bu-ruhauste eta ahaleginen ondoren, Dantzaren Nazio-



arteko Eguna aprobetxatu zuten, apirilaren 30ean, urteurrenaren ospakizunari amaiera emateko, eta 25. urteurrenerako prestatutako bideoa proiektatzeko.

Amalur, 15 urte naturari eskainiak

Udazkeneko, Tolosako Udalak Amalur jardunaldiak antolatzen ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin. Alberto Luengo biologo tolosarrak sortu zuen proiektua, 2006an, herritar gehiagorekin batera, eta berak zuzendu ditu orain artekoaldiak. Naturaz, antropologiaz eta bidaiez hitz egin, hausnartu eta emozioak partekatze topagunea da Amalur, bertako eta nazioarteko puntako hizlariak bilduz.

Jardunaldiek hamabost urte bete dituzte aurten, eta liburu bat argitaratu berri du Luengok: *Amalur: bidaia, natura eta antropologia*. «Atzera begirako lan bat da, Amalur jardunaldien espiritua bikain laburtzen duena», aitortu du egileak. Egitura sinpleko liburua dela azaldu du: «Irakurterraza izan zedin nahi nuen, irudi eta testu arinen bitartez irakurle guztiek erraz ulertzeko modukoa».

Iruzur egin dietela salatuz, banketxea epaitegietara

Aimar Agirresaroberi eta Maider Jauregiri banketxe bateko kontu korrante batean zuten dirua ostu diete; iruzur egin dietela diote, eta irtenbiderik eskaini ez dietenez, epaitegietara eraman dute kasua.

Urriaren 2a larunbata zen Aimar Agirresarobe eta Maider Jauregi ohiko eragiketa bat egiten hasi direnean Laboral Kutxan duten kontu korrontean. Euren harridurarako, baina, 23 euro besterik ez dituzte kontu horretan. Egun batzuk lehenago hasita, eta bi titular ezberdinei egindako lau transferentzien bitartez, kontuan zuten ia diru guztia kendu zieten. «Guk ez genuen ezer agindu; ez genion inori baimenik eman», adierazi dute. Iruzur egin diete, eta kontu horretan dituzten aurrezki guztiak kendu.

Ertzaintzarengana joan eta salaketa jarri dute, eta astelehenera arte itxaron behar izan zuten banketxearekin harremanetan jartzeko. Agirresarobe eta Jauregi

jakitun dira iruzur kasuak argitzeak luze jotzen duela, beraz, «kezkakuta» azaldu dira. «Banketxean, gainera, ez ziguten irtenbideak bilatzen saiatuko zirela esaten, eta ardurak eta susmoak gure gain jartzen hasi ziren lehen unetik. Kreditu bat eskaini ziguten, baina ez zen onargarria, ezta etikoa ere. Kasua are gehiago zailduko zela ohartu ginen», esan du Jauregik. Irtenbiderik eman ez dietenez, epaitegietara eraman dute kasua: «Dena eraman dutenez, dena dugu berreskuratzeko. Amaieraraino joko dugu gure arrazoi eta egiarekin. Bakoitzari berea ematea besterik ez dugu eskatzen».

Laboral Kutxa finantza erakundeak ez dio ATARIARI informaziorik eman nahi izan.

HERRI OSO BAT BILAKETA LANETAN

Irailaren 14an eman da jakitera Berrobiko 33 urteko gizonezko bat desagertu dela. Hurrengo egunetik aurrera, herri osoa ibili da bilaketa lanetan.

Zaintza eta Erreskate Unitateko mendi atalak, Ertzainor eta Ertzaintzaren helikopteroak, Euskadiko Salbamenduko Txakur Taldeak, Gurutze Gorriko eta DYAKo baliabideak eta Gipuzkoako suhiltzaileak aritu dira gizonezkoaren bila, eta alboan izan dituzte berrobitarrez gain, beste hainbat lagun eta senitarteko ere.

Hilaren 18an, arratsaldean, gaztearen motoa eta motxila aurkitu dituzte mendian, eta hurrengo egunetan inguru horretan ibili dira gizonezkoaren bila. Sei egun



desagertuta egon eta gero, hilaren 20an, onik aurkitu dute gizonezkoa. Albiste ona tarteko, Berrobi herria «elkarlanaren eta inplikazioaren eredu» izan dela esan du David de Miguel Berrobiko alkateak, eta bilaketa lanetan modu batean edo bestean parte hartu dutenak eskertu ditu udaletik.

Matxin Labaien margolaria

Uztailaren 29an hil da 89 urte zituela Matxin Labaien margolari tolosarra. Bizitza, zahartu arte, pintatzen eman du. Paisaiak margotzen zituen gehien, eta elurra marraztea zuen gustuko. Hala aipatu zion iaz TOLOSALDEKO ATARIA-ri eskainitako elkarrizketa batean.

Asko bidaiatutakoa da, eta lan asko egindakoa. Gerra markatu zuen Matxin Labaienen bizitza, aita Tolosako alkatea zela Saran erbesteratuz familia osoa. Gero Munduko Gerra hasi eta Donibane Lohitzunera joan behar izan zuen.

1945ean Donostiara etorri ziren gurasoak han geldituta, Pasaian Jesus Elozegi osabarekin bizituz, eta 1954an itzuli ahal izan zuten Tolosara.



PAKO BIDASORO ZINEGOTZI ETA PRESO OHIA

Abuztuaren 24an hil da zen Pako Bidasoro Blasco Grandes, 80 urte zituela. Ibarako zinegotzia izan zen, frankismoaren ondorengo lehen legealdian, eta atxilotu eta preso egon zen zinegotzia zela. Bidasoro Herri Batasuna ordezkatzu

katuz izan zen zinegotzia, 1979-1983 legealdian. 1980an atxilotu egin zuten, Jose Manuel Artola zinegotziarekin batera, ETari laguntzea leporatuta, eta espetxean izan zen. Aurretik, 1969an ere atxilotu zuten, EGIko kide izatea, propaganda banatu eta ikurrinak jartzea leporatuta. 2016an, EPPKren aldeko dinamikan, preso ohiek Usurbilen egindako agerraldian parte hartu zuen Bidasorok.

TOLOSAKO INAUTERIE TAKO BI IZEN HANDI JOAN DIRA

Urte asko eman ditu Iñaki Goikoetxea inauterizale tolosarrak Tolosako inauterietako karrozak eta muntaketak egiten. Abuztuaren 13an hil zen Goikoetxea. 1998. urtean hasi zen bakarkako muntaketak egiten. Tomas Hernandez Mendizabal pintore, eskultore eta kartelgile ezaguna hil da ere. Askotariko diziplinetan eginiko lanengatik da ezaguna, baina bereziki kartelgintzaren munduan egin dituen lan ugariengatik lortu zuen sona sortzaileak. Tolosako Inauterietako kartelak egin zituen 53 urtez. Antxon Elozegi Tolosako Ekimen eta Turismo Zentroko sortzaileak animatu zuela inauterietako kartelak egitera.





IÑAKI LOPETEGI 'AGERREMEDIA' ARGAZKILARI TOLOSARRA

Uztailaren 16an hil da Iñaki Lopetegi argazkilari tolosarra. *Agerremedia* bezala egin zen ezaguna. Goiatzen bizi zen azken urteetan, eta etxerako bidean izandako moto istripu baten ondorioz hil zen, 60 urte zituela.

Argazkilaria, urte askoan, *EITB*n aritu zen lanean eta batez ere, txirrindularitza probetan aritzen zen bideo kamerarekin. Bideo kamerarekin gogoratzen du Iñaki Lopetegi semeak; gerora sartu zitzaion argazkilaritzarako arra. Argazkilaritzan sartuta, txirrindularitzaz gain, beste mila esparrutan lan egiten hasi zen Lopetegi aita: «Horren harira egin da hain ezaguna hainbat esparrutan», dio semeak.

Baina, behin argazki kamera eskuan hartuta ezaguna egin zen Tolosako ia edozein ekitalditan. Izan kirola edo izan kultura, Lopetegi han aritzen zen argazkiak ateratzen. Alor ezberdineko lagunak egin zituen, eta hil bezain laster hasi ziren haren lagunak eta gertukoak omenaldian pentsatzen. Urriaren 24an omendu zuten lagunek eta gertukoek omenaldi-festa bat eginez, eta ofizio eta afizio zituenak uztartuz: txirrindularitza eta argazkilaritza.



MODESTO-ENEAKO IXABEL BERASATEGI

Ixabel Berasategi anoetarra urriaren 15ean hil da 95 urte zituela, Anoetako Modesto-enea etxeko alaba zen. Modesto Ormazabal anoetarra eta Maria Saralegi alkizarra ezkondata jarri ziren bizitzan Anoetako Modesto Enean. Etxearen behealdean saltokia zabaltzeko baimena eskuratu zuten 1900. urteko abenduaren 1ean. Ordutik, janari denda, jatetxe eta taberna bezala ibili izan zen urte luzez Moxtone. Han jaio eta lan egin izan du, bizi osoan, Ixabel Berasategi Ormazabalek (Anoeta, 1925-2021).

2016ko Korputz egunean omenaldi xumea egin zioten. Udal ordezkariak lore sorta eta oroigarria eman zizkieten eta aureskua dantzatu zioten herriko gazteek. Anjel Mari Peñagarikanok bertsoan gorazarre egin zion Anoetan aurreko mendea hastearekin batera zabaldu zen jatetxe, taberna eta estankoko buru izandakoari. Ixabel Berasategik hunkituta jaso zuen omenaldia.

ALTUNA III.AK BESTE BI TXAPEL DITU SOINEAN

Pilotak berriz ere urte emankorra izan du eskualdean, maila profesionalean. **Jokin Altuna** amezketarrak bere bidea egiten jarraitzen du, eta aurten beste bi txapel jantzi ditu, biak ere banakako lehian: buruz burukoa eta lau eta erdikoa. Guztira bost txapel ditu amezketarrak, egun aktiboan dauden pilotarien artean gehiena, eta 25 urte bakarrik ditu. Rezustaren aurka irabazi du buruz buruko finala, 22-5, eta Lasori lau eta erdikoa irabazi dio, 22-20, tentsio handiko final lehiatuan. Jokatutako azken hiru finalak irabazi ditu, 2020ko Lau eta Erdiko Txapelketa ere irabazi zuelako, eta datu horri garrantzia eman dio Altuna III.ak.

Buruz buruko finalean amezketarrek batera **Iñaki Artola** alegiarrek egon behar zuen, eskualdekoe arteko lehia ikusteko. Baina Rezustari irabazi zion finalerdian lesionatu egin zen Artola eta azkenean ezin izan zuen jokatu final handia; lehen mailan bere lehenengo izango litzateke.

Bere lehen final handia jokatu duena **Jon Ander Peña** tolosarra izan da. Bere lehen parte hartzea izan da titular moduan lehen mailako binakako txapelketan, eta Albisurrekin batera finalera iritsi da. Aurkari gogorak izan dituzte finalean, Elezkano II.a eta Zabaleta, eta azkenean galdu egin zuten 22-7.

Erik Jaka lizartzarrentzat gazi-gozoa izan da urtea. Batetik, Aspe enpresatik Baikora pasa da, baina elastiko berriarekin jokatu behar zuen bere lehen partida ez zuen bukatu eta gero perikarditisa izan zuela jakin zen. Beraz, ezin izan du iaz buruz burukoan lortutako txapela berriz lortzeko lehian egon.

Urte berezia izan da **Beñat Urretabizkaia** ikaztegi-tarrentzat: lau urte egin ditu Baiko enpresan, eta bizkarreko lesio batengatik bere ibilbidea amaitu zaio.

Olaizola II.a txapeldun handiak pilota profesionala utzi du eta frontoi nagusi guztietan agurra egin diote.



Jokin Altuna, buruz buruko txapela eta garaikurrarekin. I.G.L.

Tolosako Beotibar frontoian ere pilotari bezala azken txaloak jaso ditu harmailak bete dituzten zaleen alde-tik, bere ibilbideko azken aurreko partida jokatuz.

Miren Larrarte bidaniarrak nazioarte mailako hainbat txapelketetan emaitza nabarmenak lortu ditu. Elite World OneWall Tour txapelketan txapeldunorde geratu da. Bestetik, Europako Front Ball Txapelketan garaile izan da. Horrez gain, Europako OneWall Txapelketan izan da, Euskal Selektzioarekin, eta 19 urtez azpiko mailan irabazi egin zuen binaka, Leire Garai bikotekidearekin.

Odei Arregi tolosarrak erremonte profesionalean debuta egin du, Hernaniko Galarreta frontoian, Oriamendi enpresarekin. Arregik Goikoetxea V.arekin jokatzen du, Zaldua anaiei aurka 40-34 galduz.

Imanol Rojo eskiatzailea, gero eta hobeto

Alpino Uzturre elkarteko **Imanol Rojo** iraupen eskiatzaile tolosarrak orain arte Munduko Txapelketa batean lortutako postu onenak eskuratu ditu. 30 kilometroko skiatloian 19. postua lortu du eta 50 kilometroko klasikoa 18. postua. Era berean, Espainiako Txapelketan nagusitasun osoa erakutsi du tolosarrak, hiru probetan, esprintean, klasikoan zein estilo librean irabaziz. Otsailean Pekinen egingo diren neguko Olinpiar Jokoetara joatea du helburu.

Irene Caminos, Europako txapeldun bike trialean

Europako Bike Trial Txapelketa irabazi du **Irene Caminos** tolosarrak, Reinosan (Kantabria). Munduko Txapelketara joatekoa zen, baina egun batzuk lehenago COVID-19an positibo eman zuelako ezin izan zen aurkeztu.

Josu Artola, Espainiako Kopako irabazle

Hard enduroko Espainiako Kopa irabazi du **Josu Artola** amezketarrak eta **Alberto Aranburu** tolosarrak bosgarren postuan amaitu du. Trofeo mailan, **Andoni Elustondo** tolosarrak hirugarren egin du senior mailan eta **Aritz Murua** abaltzisketarrak hirugarren egin du junior mailan.

Paula del Pozo, pauso sendoz triatloian

Paula del Pozo triatleta alegiarrak hainbat emaitza nabarmen lortu ditu: junior mailako Europako triatloi kopako proba bat irabazi du Rigan, eta junior mailako superesprinteko Espainiako Txapelketan zein distantzia olinpikoko proban txapeldunorde izan da. Bigarren ikasturtea egiten ari da Madrilgo Blume errendimendu altuko zentroan, Espainiako Federazioaren bekarekin.

Inoizko emaitza onenak lortu ditu Tolosaldea IKTk

Tolosaldea IKT igeriketa taldeak Euskal Herriko Kopan inoizko emaitzarik onenak lortu ditu, mutiletan lehen postua lortuz eta emakumezkoetan hirugarrena. **Nahia Garrido** igerilari urretxuarra nabarmendu da, nazioarte mailako Mediterraneo Kopan urrezko eta zilarrezko domina bana lortuz, eta 200 metro bizkar estiloan 14 urteko Espainiako marka ezarriz.

Tolosa CF-ko atleten lorpen nabarmenak

Tolosa CF-ko hainbat atletek emaitza nabarmenak lortu dituzte. **Maria Felisa Okomo** tolosarra bigarren izan da pisu jaurtiketan 20 urtez azpiko Espainiako Txapelketan eta Euskadiko 20 urtez azpiko zein 23 urtez azpiko errekorak ezarri ditu. **Paula de Juan** ordiziarrek Espainiako Txapelketan 7. postua lortu du eta Gipuzkoako errekor absolutua 400 metro hesietan. **Maialen Muñoz** ibartarrak Euskadiko Kros Txapelketa irabazi du eta txapeldunordea izan da 10.000 metroetan. **Ander Garin** alegiarrak Euskadiko Krosean hirugarrena izan da, errepideko hamar kilometroko Euskadiko Txapelketa irabazi du, eta baita distantzia bereko aire libreko pistako Euskadiko Txapelketa ere. Bestalde, **Iraitz Arrospide** billabonatarra ez zen aukeratua izan Olinpiar Jokoetan parte hartzeko.

Orain arteko emaitza onenak erritmikako gimnastentzat

Tolosa CF-ko gimnastika erritmikoko lehen mailako taldeak laugarren postua lortu du Espainiako Txapelketan, orain arte lortutako emaitzarik onena. Bestalde, Valladoliden jokaturako Espainiako Kopako proba irabazi dute, lehen mailan lortutako lehen domina izanik klubarentzat. Sei gimnastek osatzen dute lehen mailako taldea: **Ismene Agirre**, **Aitane Goikoetxea**, **Ane Alustiza**, **Mara Herrera**, **Irene Arbeloa** eta **June Azpiazu**.



Goi mailako trainerua

TAKeko **Tolosaldea traineruak** sentsazio oso onekin hasi zuen denboraldia. Iaz bezala, etxeko bandera irabazi zuen, eta II. Tolosaldeko Bandera ere gordeta dute. Aurreko urtean lortutakoa -ETE Liga irabaztea eta bidean bederatzi bandera lortzea- berdintzeko gai izango ote ziren jakiteko ikusmina zegoen. Ez zen lan makala, baina erronkari eutsi eta lortu dute bigarrengo ETE Liga irabaztea, gainera bidean bederatzi bandera astinduz. Euskotren Ligara igotzea izan da aurtengo helburu nagusia, baina horri ekin aurretik Kontxako Bandera zegoen jokoan. Ez zuten lortu ohorezko txandan sartzea, baina bigarrengo estropada bikainarekin azkenean laugarren postua lortu zuten. Igoera fasean zer gertatuko zen jakitea falta zen urtea biribiltzeko, eta lortu dute. Tolosaldea traineruko arraunlariak asteburu bikaina egin eta goi mailako Euskotren Ligara igo dira.

Goi maila horretan beste hiru traineru izango dituzte aurrerari eta tartean eskualdeko arraunlariak ere izango dira. Aurtengoari dagokionez, Donostia Arraun Lagunak izan da protagonista absolutua, Euskotren Liga irabazteaz gain, Kontxako Bandera ere lortu dutelako, biak lehenengo aldiz. Eskualdeko hiru arraunlarik parte hartu dute lorpen horretan: **Ane Sanchez** anoetarra, **Maidor Zumeta** ibartarra eta **Xubane Uribarrena** lizartzarra.

Irati Lakunza, bosgarren Munduko Txapelketan

Irati Lakunza hegats igeriketako igerilari tolosarra-
rentzat urte berezia izan da. Munduko Txapelketan bosgarren postua lortu du 400 metroko eskafandra proban. Horrez gain, Espainiako txapelketan urrezko bi domina eta zilarrezko bat lortu ditu, eta Espainiako bi errekor berri ezarri ditu. Lorpen horiek tarteko, Tolosako Kirol Galan kirolari onenaren saria jaso du.

Saralegi eta Regillaga, bikain kata modalitatean

Unai Saralegi tolosarrak eta **Unai Regillaga** amezketarrak orain arteko emaitzarik onenak lortu dituzte judoko kata modalitatean. Espainiako Txapelketa irabazi dute, bigarren egin dute Europako Txapelketan eta 13. geratu dira Munduko Txapelketan. Tolosako Kirol Galan, gizonetzkoen mailan sari nagusia jaso dute.

Larrarte munduko onenekin eta Iribar profesionaletara

Beste pauso bat eman du **Eukene Larrarte** txirrindulari tolosarrak eta lehen aldiz elite mailako pistako Munduko Txapelketan parte hartu du eta bere posturik onena kanporaketan lortutako bederatzi-garrena izan da. Espainiako txapelduna ere izan da omnium proban. Datorren denboraldian Bizkaia-Durango taldean ariko da Larrarte. **Unai Iribar** ibartarrak profesionaletara egin du jauzi, eta hurrengo bi denboralditan Euskaltel-Euskadi taldean ariko da. Afizionatu moduan egin duen azken urtean, Iribarrek hainbat garaipen izan ditu eta 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan hirugarren izan da. Bere aldetik, **Jon Irisarri** leaburuarrak profesionala izateari utzi dio, bost urtez Caja Rural-RGA taldean izan ondoren.

Areto futbolean, pozak eta penak

Lauburu Ibarra 2. B mailako taldeak 2020-2021 denboraldia goiko postuetan bukatu eta Errege Kopa jokatzeko aukera izan du. Tolosako Laskorain taldea 2. B mailatik Hirugarren Mailara jaitsi da. Bestalde, Lauburu Ibarra taldeko jubenilek, bere liga irabazi ondoren, Espainiako Koparen azken faseko sailkatu ziren.

Bi taldeek mailari eutsi diote

Futbolean, Tolosa CF-ko bi talde nagusiek, emakumezkoen 1. Maila Nazionaleko taldeak eta gizonezkoen Hirugarren Mailakoak mailari eutsi diote.

Mendi duatloian, nagusi

Eneko Gurrutxaga amasarrak Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuitua irabazi du, eta eskualdeko hiru probetan (Ibarra, Amasa eta Aduna) gailendu da.

Mercader, hirugarren European

Joseba Mercader surflari tolosarrak hirugarren egin du surf egokituko Europako Txapelketan, eta bigarren postua lortu du Espainiako Txapelketan.

Dominak lortuz halterofilian

Halterofilian Danok Danena taldeko **Ekaitz Kortajarena** zizurkildarrak Espainiako Master Txapelketan irabazi du, eta **Eki Lizaso** herrikidea txapeldunorde izan da 17 urtez azpiko Espainiako Txapelketan.

Jose Mari Zulaika ‘Paskualsoro’ hil da

Jaiotzez zarauztarra zen Jose Mari Zulaika, baina ezkonduz geroztik Bedaion bizi izan zen. Paskualsoro baserrian jaio zen, eta segalari bezala egin zen ospetsu. Geroztik, harri jasotzen ere ibili izan zen. 82 urterekin hil da, Bedaion.

Apnean bidea eginez

Gari Iruretagoiena zizurkildarrak lehen aldiz Espainiako Txapelketa irabazi du apnea estatikoan, zazpi minutu eta hamalau segundoko marka eginez, eta Munduko Txapelketara joateko aukera izan du.

Bolatoki berria Belauntzan

Kirola bultzatzeko asmoarekin hainbat proiektu abiatu dituzte Belauntzan, eta horietako bat da bolatoki berria. Aldai baserriko zelaian eraiki dute, eta eskualdean estalita dagoen lehen bolatokia da.

Zizurkilgo kirolari errepassoa

Irati Egibar Izeta zizurkildarrak *Zizurkilgo kirola historian zehar* beka irabazi zuen, eta urtebeteko azterlana egin du ondoren. Lehia arautuaz eta arautu gabekoaz aritu da osatu duen lanean.

Pentatloiaaren gorakada

Euskal pentatloian, banakakoan, **Joseba Otaegi** zizurkildarra bigarren izan da eta **Iñaki Errazkin** tolosarra laugarren. Postu bera lortu du Errazkinek binakakoan Aratz Mugertzarekin. *Sherpa.ai* Aizkolarari Txapelketa Nagusiko finalean izan da **Jon Irazu** zizurkildarra, seigarren eginez. **Mikel Lizartza** tolosarrak Iñigo Merkaderren aurkako apustua galdu du, korrika eta segan. **Ibarra Sokatira Taldeak** Euskal Herriko txapela jantzi du zortziko mistoan.

Kirol sustatzaile omenduak

Iaz zendu zen **Jexux Mari Otaño** alegiarrari omenaldia egin diote Elorri Aldapa saskibaloitaldekoek. Otaño herriko Langaurre txirrindulari elkarteko presidentea izan zen, eta txirrindularitzaren alde lan handia egiteagatik omendu dute. Bestalde, Amezketako Pilota Bizi elkarteak **Andres Aramendi** ibartarra eta **Luis Galarraga** bidaniarra omendu ditu, Aurrera-Saiaz elkarteak sortu eta pilotari egindako ekarpenagatik.

Grina, ahalegina eta ardura



Lanbidearekiko errespetua ogigintzan eta gozogintzan
Egunez egun gauzak hobeto egiteko gogoia
Aparteko lehengaiak, gure premisa
Berrikuntza eta sormena funtsezkoak

1990

GASTROTEKA

Euskal Herria plaza, 5 Tolosa
943119017

Gure karta
ikusi
al duzu?

Baietz pikatu...





Gabonetan
oparitu mó

eguzkitako
2MÓ 58€

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

www.multioplicas.com   

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



ORBINOX

JARIAKINEN KONTROLERAKO SISTEMAK

- Gillotina-balbulak
- Euste-balbulak
- Solidoekin osaturiko jariakinenzako balbula bereziak
- Damper-ak
- Balbulak eta konportak presa eta ur-obretarako



www.orbinox.com

ORBINOX S.A. Industrialdea, z/g - 20270 ANOETA - Tel.: + 34 943 69 80 30